Atal honetan garatutako erabilera etxebizitzarena da. Etxebizitzatzat hartua da pertsona baten eta pertsona talde baten egoitza iraunkorra ahalbidetzen duen lekua. Balizko talde horretako pertsonen familia-, maitasun- edo laguntasun-loturak dituzte eta, beraz, famili unitatea delakoa osatzen dute.

Etxebizitza erabilerarako lekuek, horrelakotzat hartuak izan ahal izateko, beraietako egoileei ahalbidetu behar diete egoitza iraunkorraren berezko funtzioak erosotasunez egin ahal izatea. Izan ere, etxebizitza-unitate bakoitzerako zuzeneko sarbide berezi eta loka-bea izan behar dute.

Eraikin batek edo eraikin bateko lokal batek, etxebizitza-unitatetzat hartua izan ahal izateko gutxienezko estandarrak zehazteko, lehen aipatutako baldintzez gain, egotaldia, elikagaien prestaketa, nork bere gorputza garbitzea eta atsedena ahalbidetu beharko ditu.

Etxebizitzaren erabilerari lotutako erabilera laguntzaileztat hartuak dira egoiliarren ibilgailuen aparkalekuak, etxebizitzaren zerbitzurako instalazioak, erkidego-esekitokiak, ganbarak eta erkidegoaren bileretarako lokalak, etxebizitza kolektiboetako eraikinen kasuan.

1.5.39. artikulua.—Kategoriak

Etxebizitzako erabilerak honako kategoria hauek ditu lur-zati bakarrari dagokionez.

1. *kategoria*: Familia bakarreko edo familia biko etxebizitza. Atxikiriko etxebizitza bat edo bi dituen eraikina, oro har etxebizitzetako zutarrietatik berezita.

2. *kategoria*: Familiako etxebizitza bakana. Eraikin bakar eta bakartuko erabilera da, aparteko lur-zatian, 3 edo 4 familien egoitzarako.

3. *kategoria*: Lerroan elkartuta dagoen familia bakarreko etxebizitza. Ilaran elkartutako familia bakarreko etxebizitzetako eraikinak dira, gehienez 9 etxebizitzakoak, halako moldez non bere bebarru eskusiboa izango baitute.

4. *kategoria*: Etxebizitza kolektiboa. Familia askotarako eraikinak dira: sarrera orokorra dute elementu komunetatik, ataria, eskailerak, igogailua eta beren bebarrua dituzte.

1.5.40. artikulua.—Etxebizitzaren baldintza zehatzak

Etxebizitzetako eraikin guztietan uztailaren 17ko 189/1990 Dekretuko IV. Eranskina bete beharko da, «Etxebizitzetako bizigaitasuneko eta obretarako gutxienezko baldintzak» izenekoa, baita babes ofizialeko etxebizitzetarako ezarritako indarreko ordenantzak ere. Ordenantzak babes ofizialeko etxebizitzetara zein etxebizitza libreei aplikatuko zaizkie.

Era berean, babes ofizialeko etxebizitzaren diseinuari buruzko ordenantzak aplikatuko dira, Etxebizitza eta Gizarte gaietarako sailburuak 2002ko abenduaren 30eko Aginduak onetsitakoak, baita Irisgarritasuna Sustatzeari buruzko 20/1997 Legea eta hiri guneetako, herri eraikinetako, eraikuntzetako eta informazio eta komunikazio sistemetak irisgarritasunaren baldintzen arau teknikoari buruzko apirilaren 11ko 68/2000 Dekretua ere.

2. Dotación de energía:
 - Producción, transporte y distribución de gas y productos petrolíferos.
 - Producción y distribución de energía eléctrica.
3. Tratamiento de residuos:
 - Residuos sólidos urbanos (RSU).
 - Residuos inertes.
 - Residuos sanitarios.
 - Residuos agrícolas y forestales.
4. Transporte y telecomunicaciones:
 - Transporte viario. Vías y estaciones.
 - Transporte ferroviario. Vías y estaciones.
 - Telecomunicaciones.

SECCIÓN 10.^a

USO DE VIVIENDA

Artículo 1.5.38.—Definición

El uso desarrollado en la presente sección es el uso de vivienda, entendido como tal el lugar que permite la residencia permanente de una persona o de un grupo de ellas, relacionadas con vínculos familiares, afectivos o de amistad, de manera que constituyan lo que se denomina una unidad familiar.

Al efecto de que los lugares destinados al uso de vivienda, se puedan considerar como tal, deberán permitir a sus ocupantes realizar, con el nivel de confort adecuado, la totalidad de las funciones propias de la residencia permanente, debiendo tener acceso directo, propio e independiente a cada unidad de vivienda.

Con objeto de concretar los estándares mínimos para que un edificio o un local de un edificio pueda ser considerado como una unidad de vivienda, además de las condiciones anteriormente indicadas, deberá posibilitar la estancia, la preparación de alimentos, el aseo personal y el descanso.

Se consideran usos auxiliares vinculados al uso de vivienda, el aparcamiento de los vehículos de los residentes, las instalaciones al servicio de las viviendas, los tenderos comunitarios, los trasteros y los locales para reuniones de la comunidad, en el caso de edificios de viviendas colectivas.

Artículo 1.5.39.—Categorías

El uso de vivienda comprende las siguientes categorías referidas a una sola parcela.

Categoría 1: Vivienda uni o bifamiliar aislada.—Un solo edificio que alberga una o dos viviendas adosadas, y generalmente separadas de los linderos de la misma.

Categoría 2: Vivienda familiar aislada.—El uso se sitúa en edificio único y aislado, sobre parcela independiente y destinado a residencia de 3 ó 4 familias.

Categoría 3: Vivienda unifamiliar agrupada en hilera.—Se trata de edificios de viviendas unifamiliares agrupadas en hilera hasta un máximo de nueve unidades, de forma que cada una tenga zaguán propio y exclusivo.

Categoría 4: Vivienda colectiva.—Se trata de edificios plurifamiliares, con acceso global a través de elementos comunes, portal, escaleras, ascensor y zaguán propio desde éstos.

Artículo 1.5.40.—Condiciones específicas de las viviendas

En todos los edificios de vivienda se dará cumplimiento a las «Condiciones mínimas de habitabilidad de las viviendas y obras conducentes a tal estado» del anexo IV del Decreto 189/1990, de 17 de julio, así como las ordenanzas vigentes al respecto para las Viviendas de Protección Oficial, que se aplicarán tanto a las que tengan esa condición como a las viviendas libres.

Igualmente se aplicarán las Ordenanzas de diseño de Viviendas de Protección Oficial aprobadas por la Orden de 30 de diciembre de 2002, del Consejero del Departamento de Vivienda y Asuntos Sociales; la Ley 20/1997, sobre Promoción de la Accesibilidad, y el Decreto 68/2000, de 11 de abril, de Normas Técnicas sobre condiciones de accesibilidad en los entornos urbanos, espacios públicos, edificaciones y sistemas de información y comunicación.

Erabilera nagusi moduan 4. kategoriako etxebizitzakoa duten eraikinek honako zerbitzuak edo instalazio osagarriak izango dituzte:

- a) Igogailua; bertan sartzeko aukera egongo da solairu kopurua edozein dela ere.
- b) Esekitegia edo terraza-esekitegia etxebizitza bakoitzeko, eginkizun hori patio pribatuan egin daitekeenean izan ezik.
- c) Erraz iristeko moduko zabor-depositua, gutxienez 4 m²-koa: ur korronteko zuzkidura, mindazulua, estalitako lurrak eta hormak, aireztapena eta kontenedore normalizatuak pasatzeko nahikoa zabalera duen herri biderako atea izango ditu.
- d) Postontziak, indarreko arauen arabera eta erabilera komuneko aldean kokatua; erraz iristeko moduko tokian egongo dira eta esparruaren diseinuan integratuta.
- e) Atarian jarritako posta-zenbakia, udalak ezarritako bidearekin bat etorritu eta egunez zein gauez ondo ikusteko moduko tokian.
- f) Egoiliarren edo/eta kanpokoan ibilgailuetarako aparkaleku partikularra, arautegi honetako 1.5.46. artikuluan finkatutako estandarrei jarraituz.
- g) Eraikinak merkataritzako beheko solairuko lokalak baditu, lokalaren aireztapen eskusiboko zutabe bat jarri beharko da 100 m² bakoitzeko; material erregaitzekoa izango da, guztiz estankua, gutxienez 20 x 30 ebakidurako eta gainaldea baino metro 1 altuagokoa.

11. ATALA

MERKATARITZA ERABILERA

1.5.41. artikulua.—*Definizioa*

Merkataritza erabilera eraldaketarik gabeko produktu berri edo erabilien salerosketako zerbitzu guztiak sartzen dira, denda, postu, biltegi edo denda handiei dagozkienak, betiere norberaren edo etxeko kontsumorako badira.

1.5.42. artikulua.—*Merkataritza erabileraen kategoriak*

Erabilera atzeman duen eraikinean duten kokapenaren eta tamainaren arabera, ondoko kategoria hauek bereiztuko dira:

1. *kategoria*: Beheko solairuan, erdi-sotoan edo etxebizitzako eraikinen lehen solairuan edo horiei atxikita daudenak.
2. *kategoria*: Eraikin lokabeetan daudenak.
3. *kategoria*: Industri eraikinek, garajeek edo biltegiek edo etxebizitza ez diren erabilerek osatzen dituztenak.

Aipatu diren merkataritza erabilera horietako edozeinetan dauden eraikin edo establezimenduak eraikitze baimena eskuratzeko, garrantzia, hautatu den kokaeraren ezaugarriak, aldearen ezaugarriak eta sor daitezkeen eragozpenak edo transtorno pilaketak hartuko dira kontuan eta, halaber, aparkalekuak aurreikusi beharko dira.

1.5.43. artikulua.—*Denden baldintza zehatzak*

Merkataritza erabilera duten lokal guztietan ondoko baldintza hauek beteko dira:

1. Lokalean jendearentzat dagoen aldeak ez du igarobidea izaterik, ezta etxebizitzarekiko zuzeneko komunikaziorik ere.
2. Baldin eta eraikinean etxebizitzarik badago, etxebizitza horiek sarbide, eskailera eta igogailu independenteak izango dituzte.
3. Merkataritzako lokalak eta horien biltegiak ez dira etxebizitza, ezkaratz edo eskailera kutxekin lotuta egongo ez baldin bada tartean gela edo igarobide bat eta horrek sutea jazartzeko irteera-atea duenean.
4. Beheko solairua baino baxuago ezarriko diren dende ezin dira gainean duten lokalarekiko independente izan eta horien bien arteko lotura gutxienez metro bateko zabalera duen eskailera izango da. Erdi-sotoan dagoen lokalaren azalera ezin du berari lotuta dagoen beheko solairuaren lokalaren azalaren bikoitza baino gehiago izan.

Los edificios cuyo uso predominante sea la vivienda de categoría 4, dispondrán de los siguientes servicios o instalaciones complementarias:

- a) Aparato elevador accesible con independencia del número de plantas.
- b) Tendedero o terraza-tendedero por cada vivienda, salvo que dicha función pueda desarrollarse en patio privado.
- c) Depósito de basura de fácil acceso, con una superficie mínima de 4 m², dotación de agua corriente y sumidero, suelos y paredes revestidos, ventilación y puerta a vía pública con anchura capaz de permitir el paso de contenedores normalizados.
- d) Buzones para la correspondencia de acuerdo con las Normas vigentes y situados en zona de uso común, de fácil acceso e integrado en el diseño del ámbito en que se ubique.
- e) Número postal dispuesto en el portal conforme a la disposición viaria establecida por el Ayuntamiento y perfectamente visible tanto de día como de noche.
- f) Aparcamiento particular para los vehículos de los moradores y/o ajenos, siguiendo los estándares fijados en el artículo 1.5.46 de la presente Normativa.
- g) Si el edificio dispone de bajos comerciales, se deberá prever una columna de ventilación exclusiva del local por cada 100 m², de material incombustible, perfectamente estanca, de 20 x 30 centímetros de sección mínima y con una altura superior a la cubierta en 1 metro.

SECCIÓN 11.^a

USO DE COMERCIO

Artículo 1.5.41.—*Definición*

El uso de comercio comprende todo servicio público de compra-venta sin transformación, de productos nuevos o usados, para consumo personal o doméstico, en tiendas, puestos, almacenes o grandes almacenes.

Artículo 1.5.42.—*Categorías del uso de comercio*

En función de su situación con respecto de la edificación que acoge el uso y en función de su tamaño, se distinguen las siguientes categorías:

- Categoría 1*: Situados en planta baja, semisótano o primera planta de edificios de vivienda o anejo a ellos.
- Categoría 2*: En edificios independientes.
- Categoría 3*: Formando parte de edificios industriales, garajes o almacenes u otros usos no de viviendas.

Para la obtención del permiso de construcción de edificios o establecimientos incluidos en cualquiera de los grupos de uso de comercio citados, se tendrá en cuenta su importancia, características de emplazamiento elegido, carácter de la zona y molestias o acumulaciones de tránsito que pueda proporcionar y previsión de aparcamientos.

Artículo 1.5.43.—*Condiciones específicas de los comercios*

Todos los locales de uso comercial deberán observar las siguientes condiciones:

1. La zona destinada al público en el local no podrá servir de paso, ni tener comunicación directa con ninguna vivienda.
2. En el caso de que en el edificio exista uso de viviendas, deberán disponer éstas de accesos, escaleras y ascensores independientes.
3. Los locales comerciales y sus almacenes no podrán comunicar con las viviendas, cajas de escaleras, ni portales, salvo a través de una habitación o paso intermedio, con puerta de salida inalterable al fuego.
4. Los comercios que se establezcan en nivel inferior a la planta baja, no podrán ser independientes del local inmediato superior, debiendo estar unido a éste por una escalera de ancho mínimo de un metro. La superficie del local situado en semisótano no podrá ser superior al doble de la superficie del local de planta baja a él unido.

5. Lehen solairuan instala daitezkeen 1 kategoriako dendak ezin dira azpian duten lokalarekiko independente izan eta horien bien arteko lotura gutxienez metro bateko zabalera duen eskailera izango da, salbu eta solairu osoa merkataritzako erabilerarako denean eta sarbideragarritasuna era egokian bermatzen denean. Beheko solairuan dagoen lokalaren gutxieneko azalera 20 m²-koa izango da soto edo lehen solairuarekin lotuta dagoenean.

6. Jendearentzako eskailerak, gutxienez, metro bateko zabalera izango du merkataritzako lokalean eta beti egongo da erabileraren intentsitatearen izarian eginda.

7. Merkataritzako lokalek, baldin eta 25 m²-tik gorako azalera badute, Laneko Seguritasun eta Higieneari buruzko indarreko legerian ezarri diren komunak eta zerbitzuak izango dituzte. Dena dela, ehun (100) metro koadrotik gorakoetan, guztiz bereziak izango dira sexu bakoitzeko. Ez da komunak eta gainerako lokalen arteko komunikazio zuzenik egongo eta, ondorioz, tarte bat edo isolatzeko alde bat eraikiko da.

8. Denda multzoak daudenean (azokak, elikadurak saltzeko galeriak eta denda-multzoak) komunak zentralizatu egin daitezke lokal bakoitzari dagozkion moduan; kasu horretan komun horien azalera denda bakoitzaren zerbitzurako behar denaren baturaren balio-kidea izango da.

9. Merkataritzako lokalen argiztapena eta aireztapena naturalak zein artifizialak izan daitezke.

Lokalak argi eta aireztapen naturalak baditu, argi eta aireztapen bakoek ez dute izango lokalak duenaren zortziren bat baino gutxiagoko gainazala. Hortik kanpo uzten dira biltegiak, trastelekuak eta igarobide hutsak diren lokalak. Galarazita dago merkataritzako lokalek patioxken bidez etxebizitzekin konpartitzea aireztapena.

Argiztapenaren eta, baldin eta horrelakorik badago, aire egoitzapenaren instalazioen proiektu xehekatuak aurkeztu beharko dira eta proiektu horietan indarreko legerian ezarri dena bete beharko da. Lokala ireki aurretik eta irekita dauden bitartean bidezko ikuskapena egingo da eta instalazioak egokiak ez balira edo behar bezala funtzionatuko ez balute, Udalak lokala itxi dezake, erabat edo partzialki neurri zuzentzaile egokiak hartu arte.

10. Larrialdietarako irteerak izango dituzte, suteak itzaltzeko sarbide bereiztuak, kasu bakoitzerako gailuak eta tresnak eta, kasu bakoitzaren izaeraren arabera, indarreko legeriak ezarriko dituenak izango dituzte.

11. Eraikuntzan erabili diren materialek suteen aurkako jazarkorrak izango dira eta materialek suargaitzak izango dira eta ez dute kanpora 45 dBA eta 35 dBA mailak gainditzen dituzten zarata edo dardararik irtetezen utziko, gaueko 10ak eta goizeko 8ak artean alegia.

12. Inguruan bizi direnei eta handik igarotzen diren oinezkoiei eragozpen, ke, dardara eta abarrik ez dela egongo barmetuko zaie.

13. B kategorian, kasu guztietan, eta 1 eta 3. kategorietan, baldin eta lokal eta bulego guztiak kontuan hartuta 500 m²-ak gainditzen badituzte, lur-zatiaren barruan, nahitaezkoak diren aparkatzeko plazak ezezik hornidura eta banaketa ibilgailuen bidezko zamaketa lanak egiteko berariazko tokiak ere izango dituzte eta horretarako gutxieneko plazak nahitaezko aparkatzeko plazan 100eko 10ekoa izango dira.

5. Los comercios de categoría 1 que se establezcan en primera planta no podrán ser independientes del local inmediato inferior, debiendo estar unido a éste por una escalera de ancho mínimo de 1 metro, salvo que se dedique la planta entera a uso comercial y se asegure satisfactoriamente su accesibilidad. El local de planta baja deberá tener una superficie mínima de 20 m² cuando comunique con sótano o planta primera.

6. Las escaleras de servicio al público, en los locales comerciales, tendrán un ancho mínimo de 1 metro, debiendo en todo caso dimensionarse de acuerdo con la intensidad de uso previsible en el establecimiento.

7. Los locales comerciales cuya superficie sea mayor de 25 metros cuadrados dispondrán de servicios sanitarios de acuerdo con la legislación vigente relativa a Seguridad e Higiene en el Trabajo. En todo caso, a partir de los 100 metros cuadrados se instalarán con absoluta independencia para cada sexo. Los servicios no podrán comunicarse directamente con el resto de los locales y, por consiguiente, deberán instalarse con un vestíbulo o zona de aislamiento.

8. En los locales comerciales que formen un conjunto, como ocurre en los mercados de abastos, galerías de alimentación y pasajes comerciales, podrán agruparse los servicios sanitarios correspondientes a cada local, en número tal que permita cubrir la demanda previsible, suma de la de los locales comerciales.

9. La luz y ventilación de los locales comerciales podrá ser natural o artificial.

Si el local sólo cuenta con luz y ventilación naturales, los huecos de luz y ventilación deberán tener una superficie total no inferior a un octavo de la que tenga la planta del local. Se exceptúan los locales exclusivamente destinados a almacenes, trasteros y pasillos. Se prohíbe que los locales comerciales compartan con las viviendas la ventilación por patios.

Se exigirá la presentación de los proyectos detallados de las instalaciones de iluminación y acondicionamiento de aire si lo hubiere, que deberá cumplir las disposiciones vigentes, quedando estas instalaciones sometidas a revisión antes de la apertura del local y en todo momento mientras permanezcan abiertos. En el supuesto de que no fuesen satisfactorias o no funcionaran correctamente, en tanto no se adopten las medidas correctoras oportunas, el Ayuntamiento podrá ordenar el cierre total o parcial del local.

10. Dispondrán las salidas de emergencia, accesos, aparatos especiales para extinción, instalación y útiles que, en cada caso, determine la legislación vigente, de acuerdo con la naturaleza y características de la actividad.

11. Las estructuras de la edificación, serán resistentes al fuego y los materiales deberán ser incombustibles y de características tales que no permitan llegar al exterior ruidos o vibraciones de niveles que superen los 45 dBA en horario de día, y los 35 dBA desde las 10:00 de la noche a las 8:00 de la mañana.

12. Se exigirán las instalaciones necesarias para garantizar, al vecindario y viandantes, la supresión de molestias, olores, humos, vibraciones, etc.

13. En la categoría 2 en todos los casos, y en las 1 y 3 cuando la superficie total de los locales, incluidas sus dependencias, sobrepase los 500 metros cuadrados, dispondrán en el interior de la parcela, además de los aparcamientos obligatorios, de espacios expresamente habilitados para las operaciones de carga y descarga de los vehículos de suministro y reparto, con un número de plazas mínimas del 10 por 100 de los aparcamientos obligatorios.

12. ATALA

APARKALEKUKO ERABILERA

1.5.44. artikulua.—Definizioa

Motor mekaniko arineko ibilgailuak, automobilak, motozikletak edo zikomotoiak gordetzeko edozein lokali deritzo aparkalekua edo garajea, baita igarotzeko, itxaroteko edo egoteko alboko tokiak ere.

Ez da sartzen erabilera honetan ibilgailuak konpontzeko edozein lokal edo tailer mota; horiek industriako erabileran sartzen dira. Aparkalekuari lotutako erabilera osagarritzat ibilgailuen garbiketa onartzen da.

SECCIÓN 12.^a

USO DE APARCAMIENTO

Artículo 1.5.44.—Definición

Se define como aparcamiento o garaje cualquier local destinado a la guarda, con carácter regular, de vehículos ligeros de motor mecánico, automóviles, motocicletas o ciclomotores, así como a los lugares anejos de paso, espera o estancia de los mismos.

No se incluye en este uso cualquier tipo de local o taller para reparación de vehículos que quedan incluidos en el uso industrial a estos efectos. Se admite como uso auxiliar, vinculado al aparcamiento, la limpieza de los citados vehículos.

1.5.45. artikulua.—Aparkalekuko erabileraren kategoriak

Ondorengo kategoriak ezarri dira:

1. *kategoria*: Erabilera partikular edo norbanakotua duten gara-jeak-aparkalekuak:

a) Etxebizitzako sotoan: etxebizitzaren proiektzioaren azpitik.

b) Etxebizitzari itsatsiak: Gehieneko azalera 50 m² (bi auto) da.

c) Etxebizitzari itsatsita daude, baina horiekiko eraikin loka-beetan. Gehieneko azalera 100 m² (lau auto) da.

2. *kategoria*: Erabilera kolektiboko garajeak:

a) Etxebizitza kolektiboko beheko solairuan edo sotoan, edo etxebizitzetako eraikinari erantsitako sotoetan edo beheko solairuan.

b) Industria garajeak. Industrialdean daude, ezelako mugarik barik, eta gainerako kategorietan galarazita dagoen kamioi aparkamendua onar daiteke.

1.5.46. artikulua.—Aparkalekuen baldintza zehatzak**1. Gutxieneko neurriak**

Zirkulazio edo aparkamendurako zuzentzen diren guneen azalera erabilgarriaren %90ean gutxieneko altuera libre 2,30 metrokoa izango da. Gainontzeko %10ean habeen jaistea baimenduko da 2,20 metroko altuera bateraino.

Aparkalekuko gutxieneko izari libreak, sarrerak sartu barik, 4,80 metroko luzerakoak eta 2,40 metroko zabalera izango dira. Aparkalekuko plazaren alboetan kokatutako zutabeen ardatzen artean neurtu daiteke zabalera, betiere aurrealdean 2,10 metroko ahokadura gelditzen bada. Aparkalekuko plazak 30 zentimetroko soberako tartea izango du trenkada bakoitzak mugatutako albo bakoitzeko.

Garaje barruetan ibilgailuentzat egongo diren plazak ez dira izango plazako 20 m² proportzioari dagozkionak baino gehiago.

20 plaza baino gutxiagoko garajeetarako, ibilgailuentzako galtzada gehi espaloiak 15 metroko baino zabalera gutxiagoko kaleetan, sarbidearen zabalera gutxienez 4 metrokoa izango da eta 15 metro baino zabalera handiagoko kaleetan gutxienez 3 metrokoa.

20 eta 100 arteko plazako garajeetan sarbidearen gutxieneko zabalera, ibilgailuentzako galtzada gunea, ez da 4 metro baino txikiagoa izango, sartzen den kalearen zabalera kontutan hartu gabe.

100 plaza baino gehiago dituzten garajeek aparteko sarbideak izango dituzte irteera eta sarrerako, eta sarrerako ahoaren gutxieneko zabalera —autoentzako galtzada— gutxienez 4 metrokoa izango da, edo bestela 6 metro libreko aho bakarria irteera eta sarrerarako.

Espaloia etren barik egingo da espaloia iren gaineke sarrera, behe-ratutako zintariaren bidez. Kaleko lerrokaduraren mugatik eta garaiearen barrurantz, gutxienez bost metroko atzealdea eta gehienez ehuneko hiruko malda izango dira.

Udalak garajeak jartzeko baimena uka dezake finka batzuetan, horietako bideetako trafikoa edo ezaugarriak direla-eta hala egi-tea komeni denean, salbu eta neurri zuzentzaile egokiak hartzen badira.

Fatxadaren 30 metroko tarte bakoitzeko sarrera bakarria baino ezin da egon.

Automobil-jasogailu erabilera onar daiteke sarbidea bakarrik sistema horren bidez denean. Bat jarriko da 20 plazako edo frakzio-ko. Itxaronaldirako gunen horizontalak 10 metroko gutxieneko atze-aldea izan behar du, eta zabalera 6 metroko gorakoa izango da.

Arrapala zuzenak ezin dute gainditu %16ko malda, eta itzuli edo biraketako arrapalek %12koa ardatzetik neurtuta. Gutxieneko zabalera 3,5 metrokoa izango da gutxienez kurbetan gainzabalera izanda; ardatzeko kurbatura-erradioa 6 metrokoa izango da gutxienez. Sarrerako ahotik aparkalekuko lehen solairurako lehen tartean sarre-rako ahoaren gutxieneko zabalera eutsiko diote arrapalek.

Artículo 1.5.45.—Categorías del uso de aparcamiento

Se establece las siguientes categorías:

Categoría 1.^a: Garajes-aparcamiento de uso particular o individual:

a) En sótano de vivienda. Bajo la proyección de la misma.

b) Adosados a vivienda. Superficie máxima 50 m² (dos coches).

c) Anexos a vivienda, pero en edificios independientes de las mismas. Superficie máxima 100 m² (cuatro coches).

Categoría 2.^a: Garajes de uso colectivo:

a) En la planta baja o sótano de edificio de viviendas colectivas, o en planta baja o sótanos anexos al edificio de viviendas.

b) Garajes industriales. Enclavados en zona industrial, sin ninguna limitación, pudiendo admitir aparcamiento de camiones, no permitidos en el resto de las categorías.

Artículo 1.5.46.—Condiciones específicas de los aparcamientos**1. Dimensiones mínimas**

La altura libre mínima en el 90% de la superficie útil de los espacios destinados a circulación o aparcamiento será de 2,30 metros. Se permitirá descuelgue de vigas o instalaciones en un 10% restante hasta una altura de 2,20 metros.

La dimensión mínima libre de la plaza de aparcamiento sin contar accesos será de 4,80 metros de largo y 2,40 metros de ancho. La anchura se podrá medir entre ejes de pilares situados a los lados de la plaza, siempre que en su frente quede una embocadura libre de 2,10 metros. La plaza de aparcamiento tendrá un sobre ancho de 30 centímetros por cada uno de sus laterales que esté limitado por tabique.

El número máximo de plazas para vehículos en el interior de los garajes no podrá exceder del correspondiente a 20 metros cuadrados útiles por plaza.

Para los garajes con menos de 20 plazas y en calles con anchura de calzada inferior a 15 metros, la anchura de la boca de acceso será como mínimo de 4 metros, y en calles con anchura de calzada superior a 15 metros será de 3 metros como mínimo.

En aquellos garajes con un número de plazas entre 20 y 100, el ancho mínimo de boca de acceso —zona de calzada rodada— no será inferior a 4 metros con independencia del ancho de la calle a que dé su acceso.

Los garajes con más de 100 plazas tendrán accesos diferenciados para entrada y salida, con ancho mínimo de boca de acceso —zona de calzada rodada— no inferior a 4 metros cada uno de ellos, o bien una boca única para entrada y salida de 6 metros libres.

El acceso sobre acera se realizará sin interrumpir aquella, con pieza bordillo rebajada. A partir del límite de alineación de calle, y hacia el interior del garaje, existirá una zona con fondo mínimo de 5 metros y pendiente no superior al tres por ciento.

El Ayuntamiento podrá denegar la instalación de garajes en aquellas fincas situadas en vías cuyo tránsito o características singulares así lo aconsejen, salvo que se adopten las medidas correctoras oportunas.

No podrá haber más de una boca de garaje por cada 30 metros de fachada exterior.

Podrá permitirse el empleo de aparatos montacoches, y cuando el acceso sea exclusivamente por este sistema, se instalará uno por cada 20 plazas o fracción. El espacio de espera horizontal tendrá un fondo mínimo de 10 metros y su ancho no será inferior a 6 metros.

Las rampas rectas no podrán sobrepasar la pendiente del 16% y las rampas con vuelta o giro del 12% medido en el eje. Su anchura mínima será de 3,5 metros con sobreancho en curvas y su radio de curvatura en el eje será como mínimo de 6 metros. En su primer tramo desde la boca de acceso a la primera planta de aparcamiento, las rampas conservarán el ancho mínimo de la boca de acceso.

Ilaran edo 45°-ko baterian aparkatzeko plazetara doazen kaleek gutxienez 4 metroko zabalera izango dute, eta gainerakoek 5 metrokoa.

Garajeak-aparkalekuak 40 plaza baino gehiago baditu, garajea eta kanpoko aldea aparte lotuko dituen oinezkoentzako sarrera bat egin beharko da.

Aparkatzeko plazek gehienez %4ko malda izan dezakete. Ezin da plazarik egin solairu arteko arrapalen alboetan.

2. Planoak

Proiektuaren dokumentazioan eskatzen diren planoetan era egokian marraztu eta zenbatuko dira estacionamendu plaza guztiak, baita igarobideak eta sartzeko arrapalak ere; halaber, baldin eta aparkatzeko ehun (100) plazatik gora badaude zirkulazioaren norabidea adieraziko da. Halaber, suitzalgailuen kokaera adieraziko da, hondarra duten ontziena, ur-paldoena eta, hala denean, suteen aurkako eragingailu automatikoarena.

3. Aireztapena

Jarduera gogaikarri, osasungaitz, kaltegarri eta arrisksutsuei buruz Eusko Jaurlaritzak emandako 171/1985 Dekretuaren arabera egingo da aireztapena.

4. Argiztapena

Argiztapen artifiziala, hala denean, lanpara elektriko estankuen bidez egingo da, eta berauek jartzean Tentsio Baxuko Arautegi Elektroteknikoa bete behar da.

5. Suaren kontra

Garaje-aparkalekuaren kokapenak, larrialdietarako irteerek, seinaleztapenak eta suaren kontrako instalazioek Eraikuntzako NBE-CPI-96 Oinarritzako Arauan ezarritakoa bete beharko dute: Eraikinen suteen aurkako babeserako baldintzak.

6. Ur hornidura

20 plazako mahukarako iturri bat errakorrez egongo da eta hustubide zuzen baterako beharrezkoak diren hustubide sifoikoak ubide sareari eraiki eta lotuko dira, inoiz ez putzu beltzera.

1.5.47. artikulua.—Aparkalekuetako estandarrak

1. Durangoko mugartean eraikiko diren oin-plano berriko eraikinetan —edo eraikinei lotutako lur-zatietan— egin behar diren aparkatzeko plazen gutxienerako kopurua ondokoa da, eraikinen erabileren arabera:

a) Etxebizitza erabilera. Gutxienerakoa: 1,5 plaza etxebizitza bakoitzeko.

Gehienez: 3 plaza etxebizitzako.

b) Manufakturarako industriako erabilera. Hiri lurzoruan, plaza bat erabilera nagusirako eraikitako 150 metro koadroko. Hiri lurzoruan, plaza bat erabilera nagusirako eraikitako 100 metro koadroko.

c) Eraikintzako ogibide tailerren erabilera. Hiri lurzoruan, plaza bat erabilera nagusirako eraikitako 150 metro koadroko.

d) Biltegiko erabilera. Hiri lurzoruan, plaza bat erabilera nagusirako eraikitako 250 metro koadroko.

e) Erkidego-ekipoaren erabilera. Plaza bat erabilerarako eraikitako 100 metro koadroko. Metroen neurketak barruan hartzen ditu erabilera nagusia, administrazio eta kudeaketa bulegoen erabilera lagungarriak, aldagelak, zaintzailearen etxebizitza eta beste batzuk, eta ez ditu barruan hartzen ekoizteko bitartekoen biltegia eta mantenimendu gelak.

f) Bulegoko erabilera. Plaza bat bulegoko erabilerarako 37,50 metro koadro bakoitzeko aparteko eraikina denean.

g) Merkataritzako erabilera. 250 m²-tik gorako denda handiak direnean, plaza bat eskatuko da eraikitako 25 m² koadro bakoitzeko. 250 m²-tik beherako denda handietan, gutxienerako estandarra hauxe izango da: plaza bat eraikitako 50 m² koadroko.

El ancho mínimo de las calles de acceso a las plazas de aparcamiento en hilera y en batería a 45° será de 4 metros, y en el resto de los casos de 5 metros.

En el caso en que el garaje-aparcamiento tenga más de 40 plazas se preverá un acceso exclusivo para peatones que comunique de manera independiente el garaje con el exterior.

La pendiente máxima de las plazas de aparcamiento será del 5%, no pudiendo situarse plaza alguna en el lateral de las rampas de acceso entre plantas.

2. Planos

En los planos que figurarán entre los exigidos en la documentación del proyecto, deberán estar dibujadas y numeradas todas las plazas de estacionamiento, así como los pasillos y rampas de acceso indicando el sentido de circulación en el caso de más de 100 plazas de aparcamiento. Se indicará también situación de los extintores, recipientes de arena, hidrantes y red automática de dispositivo contra incendios en su caso.

3. Ventilación

La ventilación se realizará según el Decreto 171/1985 del Gobierno Vasco, sobre actividades molestas, insalubres, nocivas y peligrosas.

4. Iluminación

La iluminación artificial, en su caso, se realizará por lámparas eléctricas estancas, cumpliendo en su instalación el Reglamento Electrotécnico de Baja Tensión.

5. Contra el fuego

La disposición del garaje-aparcamiento, sus salidas de emergencia, señalización e instalaciones contra incendios cumplirán con lo dispuesto en la Norma Básica de la Construcción NBE-CPI-96: Condiciones de protección contra incendios en los edificios.

6. Abastecimiento de agua

Existirá un grifo con record para manguera cada 20 plazas y se construirán y conectarán a la red de pluviales —nunca a la fosa séptica— los sumideros sifónicos precisos para un correcto desagüe.

Artículo 1.5.47.—Estándares de plazas de aparcamiento

1. El número mínimo de plazas de aparcamiento que deben de realizarse en los edificios —o en sus parcelas vinculadas— de nueva planta que se construyan en el término de Durango, en función de los usos principales que se sitúen en ellas es el siguiente:

a) Uso de vivienda. Mínimo: 1,5 plazas por unidad de vivienda.

Máximo: 3 plazas por vivienda

b) Uso de industria manufacturera. En suelo urbano una plaza por cada 150 metros cuadrados construidos destinados al uso principal. En suelo urbanizable una plaza por cada 100 metros cuadrados construidos destinados al uso principal.

c) Uso de talleres de oficios de la construcción. En suelo urbano una plaza por cada 150 metros cuadrados construidos destinados al uso principal.

d) Uso de almacén. En suelo urbano una plaza por cada 250 metros cuadrados construidos destinados al uso principal.

e) Uso de equipo comunitario. Una plaza por cada 100 metros cuadrados construidos destinados al uso, incluyendo los destinados al uso principal y a los auxiliares vinculados de oficinas administrativas y de gestión, así como vestuarios, vivienda de guarda y otros, excepcionando de la medición a realizar a estos efectos la superficie destinada a almacén de medios de producción y mantenimiento.

f) Uso de oficinas. Una plaza por cada 37,50 metros cuadrados destinados al uso de oficinas, cuando se trate de edificio independiente.

g) Uso de comercio. Cuando se trate de superficies comerciales mayores de 250 m², se exigirá una plaza por cada 25 m² construidos. En superficies comerciales inferiores a 250 m², el estándar mínimo será de una plaza por cada 50 m² construidos.

2. Hiri lurzoruko lur-zatiren baten taxuera dela-eta, sotoko bi solairu eraikita ere artikulu honetan adierazitako aparkatzeko plazen gutxieneko kopurua betetzerik ez badago, gutxieneko estandar horiek betetzeko beharretik salbuetsiko da eraikina. Salbuespen bera egingo da eraikitako 50 m²-ko plaza bateko aprobetxamendua egitea ezinezkoa denean, lur-zatia txikiegia izateagatik eta arrapala eta sarbideen proportzioaren eraginez.

VI. KAPITULUA ERAIKUNTZA ARAUDIA

1. ATALA OROKORTASUNAK

1.6.1. artikulua.—*Xedea*

1. Kapitulu honetan eraikinari taxua ematen dioten arkitektura-elementu nagusiak definitu dira eta zehaztasunez arautu dira, eraikinen inguruko hiri-aldia aintzat harturik. Eraikinen forma eta antolamendu xehekatuan egindako hiri diseinua zehazteko erabiliko diren hirigintzako irizpideak ere artikulu honetan ezarri dira.

2. Lurzuaren erabilera, eraikuntza eta urbanizazioaren gaineko udal ordenantzek arkitektura elementuetako eta hirigintzako parametroetako izariak garatzeko eta, hala denean, aldatzeko aukerari kalterik egiten ez zaiola ulertu behar da aurreko atalean ezarritakoa. Beraz, ez dago arau subsidiarioak zertan aldatu.

1.6.2. artikulua.—*Eraikinaren definizioa*

1. Arauok aplikatzeko, eraikinak izango dira lurzorutik azaleratu edo lurzorupean dauden eraikuntza guztiak, baldin eta fabrikatuak badira, edota edozein material erabiliz egindakoak izanez gero. Halaber, eskuz landutako objektu guztiak ere eraikuntzak izango dira (kontuan izan barik zenbaterainoko gogor, mugiezin edo eranskorak diren lurzoruari dagokionez), baldin eta honakoa garatzeko erabili ahal badira: familiako bizitza, aisia, egoitza, gizarte harremanak, nekazaritza nahiz industri helburuak, zerbitzu emateak edota beste edozein jardura.

2. Eraikin bakoitzaren sailkapena honako baldintza hauen arabera egiten da:

- 1) Eraikuntza sistema propioaren arabera eraikitzea.
- 2) Banan-banan bereizteko moduko eraikuntzako unitate funtzionala izatea arkitekturaren aldetik.
- 3) Beste edozein eraikinetako aparteko elementu arkitektonikoek mugatuta egotea.
- 4) Lokaletarako sarrera propioa eta zuzena izatea eskailera edo eskaileren bidez, baita banaketako elementu propioak ere.
3. Aparteko elementu arkitektonikoek mugatuta egoteari buruzko 3. baldintza betetzen dela ulertuko da fatxadek edo horma itsuek mugatuta badago; izan ere, kasu horietan beste eraikin batetik bereizten da.

4. Sarrera propioa eta zuzena izateko 4. baldintza betetzen dela ulertuko da baldin eta banaketako elementu propioetara zuzenean sartzen bagara sistema orokorretatik, tokiko sistemetatik edo lur-zati pribatuetatik, eraikitako beste elementu batetik igaro barik.

5. Elkarri lotutako eraikin multzoa dagoenean, eta eraikinok aurreko bi zenbakietan adierazitako baldintzak betetzen dituztenean, zenbat eraikin dagoen jakiteko, sarrera edo ezkaratze lokabeak adina eraikin dagoela ulertu behar da. Elkarren artean komunikaturiko ezkaratzeek (eraikinaren barrualdetik edota galerien bidez) eraikin bakarra osatuko dute.

6. Gordeleku-aparkalekurako diren sotoko solairuen bidez bakarrik komunikaturik egonez gero, ez da eragozpen izango beheko solairutik eta goiko solairuetarantz banakako eraikinak egiteko, artikulu honetan adierazitakoa betetzen duten eraikinak adina eraikin eratuko da beheko solairutik hasi eta goiko solairuetaraino.

2. Cuando la configuración de una parcela situada en suelo urbano impida, con la construcción de dos plantas de sótano, cumplir con el número mínimo de plazas de aparcamiento indicado en el presente artículo, queda excepcionada la obligación de cumplir con los estándares mínimos indicados. Igual excepción se aplicará cuando la pequeña dimensión de la parcela no admita, por efecto de la proporción de rampas y accesos, un aprovechamiento de una plaza por cada 50 m² construidos.

CAPITULO VI REGLAMENTO EDIFICATORIO

SECCIÓN 1.ª GENERALIDADES

Artículo 1.6.1.—*Objeto*

1. Este capítulo contiene la definición y reglamentación detallada de los principales elementos arquitectónicos que definen la forma de los edificios en relación con el espacio urbano, así como los conceptos urbanísticos que son de aplicación para definir tanto la forma de la edificación como el diseño urbano que realiza la ordenación pormenorizada.

2. Lo indicado en el número anterior se ha de entender, sin perjuicio de que puedan ser desarrolladas y modificadas, en su caso, las dimensiones de los elementos arquitectónicos y las de los parámetros urbanísticos por las Ordenanzas municipales de uso del suelo, de edificación y de urbanización, sin suponer modificación de estas Normas Subsidiarias.

Artículo 1.6.2.—*Definición de edificio*

1. A efectos de aplicación de las presentes Normas urbanísticas de las Normas Subsidiarias de Durango, se entiende por edificio cualquier tipo de construcción que emerge del suelo o que se sitúa en el subsuelo, realizada con fábrica o con empleo de cualquier otro material, así como cualquier objeto manufacturado, con independencia de su durabilidad, inmovilidad o incorporación al suelo, que tenga las características precisas para poder ser utilizada para el desarrollo de la vida familiar, residencia, ocio, relación social, fines agrarios, industriales, prestación de servicios o en general para acoger el desarrollo de cualquier actividad.

2. Un edificio viene individualizado por el cumplimiento de las siguientes condiciones:

- 1) Constituirse en base a un sistema constructivo propio.
- 2) Constituir una unidad constructiva y funcional individualizable desde el punto de vista arquitectónico.
- 3) Estar limitado espacialmente por elementos arquitectónicos independientes de cualquier otro edificio.
- 4) Contar con acceso propio y directo a los locales a través de escalera o escaleras y otros elementos de distribución propios.

3. Se considera que cumple la condición 3, de estar limitado espacialmente por elementos arquitectónicos independientes de otro edificio, si está limitado por fachadas o paredes ciegas que, en su caso, lo separan de otro edificio.

4. Se considera que cumple la condición 4, de contar con acceso propio y directo, cuando se accede a los elementos de distribución propios directamente desde los sistemas generales, sistemas locales o parcelas privadas, sin pasar por otro elemento edificado.

5. Cuando exista un conjunto de edificios adosados, se podrá considerar que existen tantos edificios como entradas o portales independientes entre sí, si se cumple lo indicado en los dos números anteriores. Cuando existan varios portales que se intercomunican por el interior del edificio o por galerías, en plantas superiores a la de sótano, se considerará que se constituye un único edificio.

6. La intercomunicación de los edificios exclusivamente a través de las plantas de sótano destinadas a guardería-aparcamiento, no supondrá impedimento para que, a partir de la planta baja y hacia plantas superiores, se puedan constituir tantos edificios individualizados como cuerpos edificados cumplan lo indicado en los números anteriores de este artículo.

1.6.3. artikulua.—Eraikinetako zerbitzuak, instalazioak eta osagarriak

1. Eraikin guztiek barrualdean edateko uraren sarea eta zerbitzua, elekaenergia, euri-urak eta ur beltzak bildu eta husteko sarea eta zerbitzuak eta gainera, egoki denean, igogailua eta jasogailua eduki beharko dituzte, hori guztia indarreko legerian xedatutakoarekin eta arau hauetan ezarritakoarekin bat etorritik.

2. Elektrizitate, iturgintza, saneamendu, berokuntza, aire giroitze, gas eta telefono instalazioek, telebista antenek, igogailuek eta abarrek indarrean dagoen legeria bete beharko dute, eta eraikinen segurtasun eta estetikan eragin kaltegarriarik izan ez dezaten moduan integratuko direla bermatu beharko da.

3. Zabor biltegiak: Etxebizitza edo erabilera kolektiborako eraikuntza orok erraz iristeko moduko sarrera eta zaborren biltegitratze higienikorako lokal edo gune egokia izango ditu; gune hori 4 m²-koa izango da eta ur korronteko zuzkidura, mindazulua, estalitako lurra eta hormak, aireztapena eta kontenedore normalizatuak pasatzeko nahikoa zabalerako herri biderako atea edukiko ditu.

4. Gutunak: Eraikin guztiek gutunak jasotzeko buzoiak edukiko dituzte, indarreko arauetan xedatutakoaren arabera. Buzoiak denek erabiltzen dituzten sarbide errazeko aldeetan kokatuko dira, eta ingurura moldatutako diseinua izango dute.

5. Gobernu-zenbakiak: Nahitaezkoa izango da hiri lurreko finak seinalatzea, bakoitza kokatuta dagoen bidean dagokion gobernu-zenbakia ipiniz. Zenbaki hori egunez eta gauez ondo ikusi beharko da.

6. Ibilgailuentzako nahitaezko estazionamendua. Etxebizitza eta beste edozein erabilerrak edozein eraikinek aparkaleku estandarra ezarri beharko du eraikuntza barruan, alde historikoan izan ezik. Plaza kopurua arautegi honen 1.5.46. art. an ezarritakoaren araberrakoa izango da.

7. Behe solairuetan merkataritza edo industriako erabilerrak onartzen zaizkien eraikin berrietan, lonjako 100 m² bakoitzeko zutabea jarriko da nahitaez lokaleko aireztapen eskusiborako eta teilatuaren gainetik metro batera gehienez. Zutabe estankua eta erre-gaitza izango da; gutxienez 30 × 30eko ebakidura eta isolamendu akustikoa izango ditu.

8. Etxebizitza kolektiboko eraikin orok teilaturako sarrera izango du erkidegoaren komunikazio-gunetik, elementu pribatiborik zeharkatu barik. Era berean, erkidegoko erabilerrak patio pribatuetara ere sarrera egongo da elementu komunetatik.

9. Etxebizitza edo apartamentuko unitate bakoitzak bere erabilerrak esekitegia izango du. Gutxienez 2 m²-ko azalera eta kanpoko fatxada izango ditu, baina ikuspegia babesteko saretak izango ditu. Zuzkidura hori ez da eskatuko argi pribatuko patioak dituzten etxebizitzetan kasuan.

10. Eraikuntzan edo inguruetan kokaturiko instalazio eta zerbitzu guztiek indarreko xedapenak bete beharko dituzte, batez ere Jarduera Gogaikarri, Osasungaitz, Kaltegarri eta Arriskutsuei buruzko Araudia, eta bai auzokoei bai eraikuntzaren erabiltzaileei eta oinezkoiei bermatu egin beharko zaie ez dutela eragozpen, usain, ke, dardara edo zaratarik jasango.

2. ATALA**ERAIKUNTZETAKO SOLAIRUAK ETA ALTUERAK****1.6.4. artikulua.—Solairuen definizioak**

1. Eraikuntza bateko solairuak talde handi bitan zatitzen dira: Sestra azpiko solairuak sotokoa eta erdisotokoa dira. Gainerako solairuak, berriz, behe solairua eta horren goikoak dira; horien artean, halaber, solairu arruntak eta ganbara bereiz daitezke, eta azken hori izango da eraikuntzako solairurik altuena. Pisuko solairu arruntak gainetik gainaldeko solairua edo atikoa jar daiteke ganbararik ez badago.

2. Izendapen horietatik aparte ezin izango da beste titulurik erabili eraikuntzetako solairuak izendatzeko, 1.6.7. artikuluan era-

Artículo 1.6.3.—Servicios, instalaciones y accesorios de los edificios

1. Todo deberá contar en su interior con red y servicio de agua corriente potable, energía eléctrica, red y servicios de desagüe de aguas pluviales y negras por sistema separativo y, en los casos pertinentes, con ascensores y montacargas, de acuerdo todo ello con lo dispuesto en la legislación vigente y en lo establecido en las normas contenidas en las presentes Ordenanzas.

2. Las instalaciones eléctricas, de fontanería, saneamiento, calefacción, acondicionamiento de aire, gas, teléfono, infraestructura común de telecomunicaciones, aparatos elevadores, etc., cumplirán con la legislación vigente, debiendo quedar asegurada su integración en el edificio de modo tal que no afecte desfavorablemente a su seguridad y estética.

3. Depósitos de basura: Toda edificación destinada a vivienda o usos colectivos dispondrá, con fácil acceso, de un local o espacio adecuado para el almacenamiento higiénico de basuras, con una superficie mínima de 4 m², con dotación de agua corriente y sumidero, con suelos y paredes revestidos, ventilación y puerta a vía pública con anchura capaz de permitir el paso de contenedores de basura normalizados.

4. Cartería: Todo edificio dispondrá de buzones para la correspondencia de acuerdo con las normas vigentes y situado en las zonas de uso común, de fácil acceso e integrado en el diseño del ámbito en el que se ubique.

5. Números de gobierno: Será obligatorio el señalamiento de las fincas urbanas con el número de gobierno que les corresponda en la vía en la que se sitúen, debiendo ser perfectamente visible durante el día y la noche.

6. Estacionamiento obligatorio de vehículos: Cualquier edificación de vivienda, excepto en el Casco Histórico, y de cualquier otro uso, deberá prever dentro de su construcción, o en edificios anexos, un estándar de plazas de aparcamiento conforme al artículo 1.5.46 de la presente Normativa.

7. En los nuevos edificios cuyos bajos toleren usos comerciales o industriales, se dispondrá obligatoriamente una columna por cada 100 m² de lonja, para ventilación exclusiva del local, hasta un metro por encima de la cubierta. Dicha columna será estancia, incombustible, con una sección mínima de 30 × 30 cm y dotada de aislamiento acústico.

8. Todo edificio de vivienda colectiva dispondrá de acceso a la cubierta desde el núcleo de comunicaciones de la comunidad, sin atravesar ningún elemento privativo. Igualmente serán accesibles desde los elementos comunes los patios privados de uso comunitario.

9. Cada unidad de vivienda o apartamento dispondrá de tendadero de ropa de uso propio, con una superficie mínima de 2 m², fachada al exterior para ventilación, pero con protección de vistas mediante celosías. Únicamente no será exigible dicha dotación en el caso de viviendas con patios de luces privados.

10. Cualesquiera instalaciones y servicios que se ubiquen en la edificación o en sus proximidades deberán cumplir las disposiciones vigentes y en especial del Reglamento de Actividades Molestas, Insalubres, Nocivas y Peligrosas, garantizando tanto a los usuarios de la edificación como a los viandantes la inexistencia de molestias, olores, humos, vibraciones, ruidos, etc.

SECCIÓN 2.^a**PLANTAS Y ALTURAS DE LAS EDIFICACIONES****Artículo 1.6.4.—Definición de las diversas plantas**

1. Las plantas de un edificio se subdividen en dos grandes grupos, planta bajo rasante y plantas elevadas. Las plantas bajo rasante son las plantas de sótano y semisótano. Las plantas elevadas son la planta baja y las plantas de pisos, las cuales se dividen en plantas de piso normales y planta de camarote o bajo cubierta, que siempre serán las más elevadas de las plantas de piso. Por encima de las plantas de piso normales podrá situarse, si no existe planta de camarote, la planta bajo cubierta o ático.

2. Fuera de estas designaciones, no podrá emplearse otro título para denominar a las plantas de las edificaciones, salvo el

bilitako solairuartea eta sabaiondoa izan ezik arau subsidiarioak hasiera batean onesteko unean dauden eraikinetarako.

3. Ondoren, orain arte aipaturiko solairu motak zehazten dira:

Soto solairua

Guztiz sestra pean dagoen edo honako baldintza hauek betetzen dituen solairuari deritzo:

- a) Sestratik 70 zentimetro baino gehiago ez irtetea guztizko perimetroaren %70ean gutxienez.
- b) Azalera osoko toki batean ere ez irtetea sestratik eta perimetro osoan metro 1 baino gehiago.

Parametro horiek aplikatzeko, sotoa sestrarekin alderatzeko alegia, sotoko sabaiaaren plano hartuko da kontuan, edota behe solairuko lurzorua.

Soto solairuko sabaiaaren plano horizontalak ematen dituzten azalerak dauden eraikin bereko beheko solairuetan, solairuko azaleraren zatiki bakoitzeko gainaldearen goiko plano hartuko da, konparazio planoaren garaiera zenbatzeko. Halakoetan, behe solairuaren alde bakoitzeko konparazio planoaren garaierak neurtzeko sestrari dagokionez, lurzoruaaren garaiera hartuko da aintzat; eraikinaren alde bakoitzean, solairu kopurua zenbatu beharko da, behe solairuari dagokionez.

4. El tipo de ordenación es similar a la edificación en manzana, por lo que son de aplicación las determinaciones del capítulo III del presente título, salvo las que expresamente se citan en el presente artículo contraviniendo aquéllas.

5. Se autoriza el uso residencial en la planta que surge bajo los faldones de la cubierta, ya sea vinculado a la planta inmediatamente inferior o de forma autónoma. En el supuesto de vivienda autónoma, deberá tener una superficie útil superior a 50 m², con una altura libre mayor que 1,80 metros y demás condiciones mínimas de habitabilidad de las Ordenanzas de Diseño de las Viviendas de Protección Oficial.

6. No se permite la agrupación de las parcelas existentes, con el fin de preservar una de sus principales señas de identidad.

7. Las nuevas edificaciones que surjan por sustitución deberán mantener los aspectos diferenciales básicos, como forma de la cubierta, ritmo macho-hueco, materiales de fachada, balcones o miradores, etc., sin que sean aplicables las condiciones generales de vuelos ni la dotación de plazas de aparcamiento.

8. En las nuevas edificaciones, surgidas tras el derribo de edificaciones preexistentes, se deberán de integrar en la misma los elementos de la edificación anterior que por su belleza, antigüedad, interés arquitectónico, historia u otro motivo, a juicio de las instituciones encargadas de velar el patrimonio cultural, sea de interés su conservación.

2.9.3. artikulua.—Ekipamendu pribatuak

1. Artikulu hau lur-zati propio eta bereiztuan kokatzen den lur-zatian dauden herri jabariko ekipamenduei buruzkoa da, gordetzeko moduko zuzkidurako erabilera eta guzti.

2. Ekipamendu pribatuen barruan, ondoko kategoriak bereizten dira, eta kategoria horiek honako lur-zatiak dituzte beren aprobetxamendu eta guzti:

Hezkuntzako Ekipamendua (H.E.)

- 1) Jesuiten ikastetxea. Kurutziaga, 1. 1,50 m²/m².
- 2) Nevers ikastetxea. Bruno Mauricio Zabala, 1,50 m²/m².
- 3) Maristen ikastetxea. J.A. Abasolo. Dagoena.
- 4) Ikastola Kurutziaga, 1,50 m²/m².
- 5) San Francisco ikastetxea Intxaurrondo, 1,50 m²/m².
- 6) Ikastola Ibaizabal, 1,50 m²/m².

Equipamiento Religioso (E.R.)

- 1) Basílica Andra Mari. Dagoena.
- 2) Santa Ana eliza. Dagoena.
- 3) San Fausto eliza. Dagoena.
- 4) Tabirako San Pedro eliza. Dagoena.
- 5) San Roke ermita. Aurretik dagoena
- 6) Jesusen Zerbitzarien komentua, 1,50 m²/m².
- 7) Karmeldar Oinutsen komentua, 1,50 m²/m².
- 8) Santa Susana monasterioa, 1,50 m²/m².

Ostalaritzako ekipamendua (E.H.)

- 1) Kurutziaga hotela, 0,6 m²/m².
- 2) Gran Hotel Durango. Dagoena.
- 3) Kili-Kolo elkarte. Dagoena.
- 4) Ibaizabal antzinako hilegia. Dagoena.

Gizarte zerbitzuetako ekipamendua

- 1) Salestarrak. Galtzareta, 1,50 m²/m².
- 2) Intxaurrondo, 0,30 m²/m².

Kirol ekipamendua

- 1) Torreneña gimnasioa, 0,80 m²/m².
- 2) Miangolarra etxea.
3. Gehieneko garaiera, solairuen gehieneko kopurua eta gehieneko eraikigarritasuna (m²/m²) lotuko zaizkio ekipamendu izendapenari.

4. Finkapen-maila dela-eta, hirigintzako parametroak berrikuntza, ordezkapen edo altxaketa obretan aplikatzeko zuzeneko lizentzia erabiliko da. Obrek edo ekipamenduek nolabaiteko zailtasunak dituztenean, lerroakadurak ezarri edo/eta bolumen eraikigarriak antolatuko dituen xehetasun azaterlana egiteko eska daiteke.

5. Ekipamenduko erabilera nagusiaz gain, haizu dira elkar-turiko erabilera osagarriak, oro har ekipamenduko beste erabilera bateko kategoriak, baina egoitzakoa izan daiteke egoitzako ekipamenduan edo tailerrak industriako ekipamenduan.

X. KAPITULUA

LURZORU URBANIZAGARRIKO ARAU ZEHATZAK**2.10.1. artikulua.—Lurzoru urbanizagarriko erabilera orokorrak**

1. Aurreko arau subsidiarioak garatzeko onetsitako plan partzialaren sektoreak aintzat hartu barik, II. berrikuspenak erabileraren orokorrean arabera sailkatzen du lurzoru urbanizagarria.

- Egoitzako sektoreak.
- Industriako sektorea.

2. Hauexek dira erabilera nagusi moduan egoitzakoa duten sailkapen berriko sektoreak:

- Faustegoiena egoitzako sektorea (PP-1).
- Eguzkitzagoiena egoitzako sektorea (PP-2).

3. Industriako erabilera orokorreko sektore berria sailkatu da, Eguzkitza III, eta indarrean jarraitzen du aurreko arau subsidiarioak garatzeko behin betiko onetsitako Eguzkitza II Industriako Plan Partzialak.

Artículo 2.9.3.—Equipamientos privados

1. El presente artículo se refiere a los equipamientos de dominio privado que se asientan sobre parcela propia y diferenciada, con un uso dotacional que conviene preservar.

2. Dentro de los equipamientos privados se distinguen las siguientes categorías, que a su vez comprenden las siguientes parcelas con su aprovechamiento:

Equipamiento educativo (E.E.)

- 1) Colegio Jesuitas. Kurutziaga, 1: 1,50 m²/m².
- 2) Colegio Nevers. Bruno Mauricio Zabala: 1,50 m²/m².
- 3) Colegio Maristas. J. A. Abasolo: Existente.
- 4) Ikastola Kurutziaga: 1,50 m²/m².
- 5) Colegio San Francisco. Intxaurrondo: 1,50 m²/m².
- 6) Ikastola Ibaizabal: 1,50 m²/m².

Equipamiento religioso (E.R.)

- 1) Basílica Andra Mari: Existente.
- 2) Iglesia Santa Ana: Existente.
- 3) Iglesia San Fausto: Existente.
- 4) Iglesia San Pedro de Tabira: Existente.
- 5) Ermita San Roke: Existente
- 6) Convento Siervas de Jesús: 1,50 m²/m².
- 7) Convento Carmelitas Descalzas: 1,50 m²/m².
- 8) Monasterio Santa Susana: 1,50 m²/m².

Equipamiento hostelero (E.H.)

- 1) Hotel Kurutziaga: 0,6 m²/m².
- 2) Gran Hotel Durango: Existente.
- 3) Sociedad Kili-Kolo: Existente.
- 4) Antiguo Matadero Ibaizabal: Existente.

Equipamiento servicios sociales

- 1) Salesas. Galtzareta: 1,50 m²/m².
- 2) Intxaurrondo: 0,30 m²/m².

Equipamiento deportivo

- 1) Gimnasio Torreneña: 0,80 m²/m².
- 2) Casa Miangolarra.

3. A la denominación del equipamiento se le asocia en los planos de Normativa la altura máxima (m) o el número máximo de plantas (P) y la edificabilidad máxima (m²/m²).

4. Dado su grado de consolidación, la aplicación de los parámetros urbanísticos en obras de reforma, sustitución o levante, se realizará por aplicación de licencia directa. Cuando las obras o el equipamiento revistan cierta complejidad, podrá requerirse la redacción de un Estudio de Detalle que fije las alineaciones y/u ordene los volúmenes edificables.

5. Además del uso predominante del equipamiento se autorizan los usos complementarios asociados, generalmente otras categorías de uso equipamental, aunque puede ser residencial en el E.R. o talleres en el E.E.

CAPITULO X

NORMAS ESPECIFICAS DEL SUELO URBANIZABLE**Artículo 2.10.1.—Usos globales del suelo urbanizable**

1. Con independencia de los sectores con Plan Parcial aprobado en desarrollo de las Normas Subsidiarias anteriores, la II Revisión clasifica el suelo urbanizable por usos globales:

- Sectores residenciales.
- Sector industrial.

2. Los sectores de nueva clasificación con uso predominante residencial son:

- Sector residencial Faustegoiena (PP-1).
- Sector residencial Eguzkitzagoiena (PP-2).

3. De uso global industrial se clasifica un nuevo sector que se denomina Eguzkitza III, manteniéndose en vigor el Plan Parcial Industrial Eguzkitza II aprobado definitivamente en desarrollo de las Normas Subsidiarias anteriores.

2.10.2. artikulua.—Faustegoiena egoitzako sektorea garatzeko arau zehatzak

Faustegoiena sektoreak 63.782 m²-ko azalera gordina du; itxura irregularrekoa da San Fausto auzuneko hiri lurzoru finkatuaren eta Montorretaren artean. Ekialdean Abadiño Fausteko biribilgunea eta Montorretako (ONA) biribilgunearen lotuneko bideko sistema orokorrekin egiten du muga.

Sektorea eraikitzeko eta urbanizatzeko, plan partziala idatzi, tramitatu eta onetsi beharko da. Hala eta guztiz ere, baldin eta bideen sistema orokorra plan partziala kudeatu baino lehen burutzen bada, tokiko sistema osagarriak ukitutako lurra aurretiazko lagapenaren edo desjabetzapenaren bidez eskuratuko dira. Titularrek eraikuntzako eskubideei eutsiko diete lehen kasuan, eta bigarreanean, lurzoruko udal ondarrera pasatuko dira.

1. Erabileraren baldintzak

Sektoreko erabilera orokorra egoitza da, etxebizitza kolektiboko kategorian. Landuko den plan partzialean zehaztuko dira erabilera xehekiak egoitzako hiriko lurzorian baimendutako erabileren arabera. Hala ere, sektorearen kokapena dela-eta, erabilera nagusiaren osagarri gisa diseinatuko dira merkataritza eta zerbitzuetako erabileraren kopuruak eta moduak.

2. Aprobetxamendu baldintzak

Sektoreko gehieneko eraikigarritasuna azalera gordinetik 0,90 m²/m²-koa da; 0,70 m²/m² egoitzako erabilerari dagokio eta 0,20 m² zerbitzuei, eta gutxienez 0,15 m²/m² salbuesitako eraikinetan. Gehieneko dentsitatea 70 etxeb./ha-koa da, eta gehieneko garaiera ez da sestra gaineko zazpi solairukoa baino altuagoa izango.

Sotoko solairuetan, plan partzialak baimendutako instalazioez eta erabileraz gain, ibilgailuen aparkalekuak kokatuko dira, San Fausto auzuneari zuzkidura emateko, 2 plaza proiektuko etxebizitza bakoitzeko. Lur-zati bakoitzeko ordenantzek eskatu beharreko garajeko plaza kopurua finkatu beharko dute aipatutako helburua lortzeko. Hala ere, kopuru hori orokorrean bete beharko da sektorean eta ez lur-zatiz lur-zati ezinbestean.

Plan partzialak kategoria libreko edo babes ofizialeko kategoriako etxebizitza kolektiboko erabileraren eta proiektuko baimendutako erabileraren arteko haztapan erlatiboko koefizienteak ezarriko ditu.

3. Antolamenduaren baldintzak

Plan partzialak bermatu egingo du sektorea egon dagoen eta proiektuan agertzen den udal bide-sarean integratuko dela, gehienbat ekialdeko mugatik sektorea inguratzen duen sistema orokorrarekiko lotunea. Bidegorriko taxuketa biderapena emateko da, eta egokitu ahal izango da antolamendu orokorraren arabera, baina kanpoko taxuketako ertzak bermatzen badira.

Bideen sistema orokorraren babes-zerrenda bat ezarriko da, proiektuko etxebizitzetan ibilgailuen zirkulazioak eragingo duen zarata gutxitzeko. Gehieneko eraikuntza-lerroa 10 metrora kokatuko da Fauste eta Montorreta kaleetako biribilguneak lotzen dituen galtzada nagusiaren kanpoko ertzetik.

Plan partzialak zerbitzuetako erabileraren kokapena definituko du, merkataritzako beheko solairuetan zein ahal dela eraikinetan bertan; erabilerok bideen sistema orokorretik hurbilen dagoen lurzerrendan kokatuko dira.

Plan partzialak arautegi honetako 1.5.40. artikuluan bildu diren argiztapen, aireztapen eta etxebizitzaren ikuspegi zehatzen baldintza egokiak bermatuko ditu; eraikuntzen arteko gutxieneko tartek ezarriko ditu eta, hala denean, zintarrietarainoko eta lurzoru urbanizaezinerainoko tartekak.

4. Kudeaketaren baldintzak

Sektorearen kudeaketak berekin dakar elkarturiko sistema orokorreko kudeaketa; sistema horiek planoetan mugatuko dira eta ez dute eraikuntzako aprobetxamendurik sortzen. Hala ere, sistema horiek ukitutako lurren jabeek eta alde aurretik lurra bide sistemara laga zuten jabeek beren eskubideak erabiliko dituzte sektorean.

Faustegoiena sektoreari eraikigarritasunik ez duen banaketa alde bat atxiki zaio. Bide-sistema orokorra da, eta ekialdetik 7.753 m²-ko eremu batekin egiten du muga.

Artículo 2.10.2.—Normas específicas para el desarrollo del sector residencial Faustegoiena

El sector denominado Faustegoiena tiene una superficie bruta de 63.782 m², forma irregular entre el suelo urbano consolidado del barrio San Fausto y los suelos de Montorreta. Limita por el este con el sistema general viario de conexión de la rotonda de Fauste en Abadiño con la rotonda de Montorreta-Ona.

Para la edificación y urbanización del sector será preceptiva la redacción, tramitación y aprobación del oportuno Plan Parcial. No obstante, si la ejecución del sistema general viario se produjera en el tiempo con anterioridad a la gestión del Plan Parcial, los terrenos afectados por el sistema local complementario se obtendrán por cesión anticipada o por expropiación, conservando los titulares los derechos edificatorios en el primer caso, y pasando a formar parte del patrimonio municipal de suelo en el segundo.

1. Condiciones de uso

El uso global del sector es el residencial en su categoría de vivienda colectiva. Los usos pormenorizados se concretarán en el plan parcial que se desarrolle, en consonancia con los usos permitidos en el suelo urbano residencial. No obstante, dada su situación, el uso comercial y terciario se diseñará en cuantía y forma complementaria al objetivo residencial predominante.

2. Condiciones de aprovechamiento

La edificabilidad máxima del sector es de 0,90 m²/m² de superficie bruta del sector, correspondiendo 0,70 m²/m² al uso residencial y 0,20 m² a usos terciarios como mínimo 0,15 m²/m² en edificios exentos. La densidad máxima es de 70 viv./ha y la altura máxima no excederá de siete plantas sobre la rasante.

En las plantas de sótano, además de las instalaciones y otros usos servidores que autorice el Plan Parcial, con el fin de dotar al barrio San Fausto se situarán los aparcamientos de vehículos a razón de dos plazas por vivienda proyectada, debiendo las ordenanzas de cada parcela fijar el número de plazas de garaje exigible, con la finalidad antedicha. No obstante, el número anterior deberá ser cumplido de forma global en el sector y no necesariamente parcela a parcela.

El Plan Parcial establecerá los coeficientes de ponderación relativa entre el uso de vivienda colectiva en sus categorías libre o de protección oficial y demás usos permitidos y proyectados.

3. Condiciones de ordenación

El Plan Parcial deberá garantizar la integración del sector en la red viaria municipal, existente y proyectada, fundamentalmente la conexión con el sistema general que le bordea por el límite este. El trazado grafiado para el bidegorri tiene carácter indicativo, pudiendo acomodarse en función de la ordenación general, siempre que se garantice la entrega en los bordes con el trazado exterior.

Se establecerá una franja de protección del sistema general viario al objeto de minimizar los efectos de ruido de la circulación de vehículos sobre las viviendas proyectadas. La línea de edificación máxima se situará a 18 metros de la arista exterior de la calzada principal que conecta las rotondas de Fauste y Montorreta.

El Plan Parcial definirá la ubicación de los usos terciarios, bien sea en los bajos comerciales o preferente en edificios propios, que se localizarán en la franja más próxima al sistema general viario.

El Plan Parcial deberá garantizar las adecuadas condiciones de iluminación, ventilación y vistas específicas de las viviendas, recogidas en el artículo 1.5.40 de la presente normativa estableciendo las distancias mínimas entre edificaciones, y en su caso, las separaciones a linderos y al suelo no urbanizable.

4. Condiciones de gestión

La gestión del sector lleva incorporada la de los sistemas generales asociados y que se delimitan gráficamente y que no generan aprovechamiento edificatorio. No obstante, los propietarios de suelo afectado por dichos sistemas generales y los que cedieron adelantadamente el suelo para sistema viario, ejercerán sus derechos en el sector.

El sector Faustegoiena tiene adscrito a su área de reparto el sistema general viario que lo limita por el este con una superficie de 7.753 m², no generadora de edificabilidad.

Jarduketa sistema behin betiko finkatuko da plan partzialean, baina ahal dela lankidetzatza sistema aukeratuko da, salbu eta fidagarritasun osoz bermatzen bada jabeek nahikoa partaidetzatza izango dutela lankidetzatza sistemaren bidez sektorea burutzeko.

Burutzapenu-nearen azalera (m ²)	Eraikigarritasuna		Etxebizitzak			
	Koefiziente (m ² /m ²)	Sabai-azalera	Dentsitatea (etxeb./ha)	Kopurua, guztira	BOEen kopurua	Libreak, guztira
63.782	0,90	57.404	70	446	290	156

El sistema de actuación se fijará definitivamente en el Plan Parcial, si bien se elegirá preferentemente el Sistema de Cooperación, salvo que se garantice con total fiabilidad la participación de los propietarios en cuantía suficiente como para ejecutar el sector por el Sistema de Compensación.

Superficie unidad (m ²)	Edificabilidad		Viviendas			
	Coefficiente (m ² /m ²)	Superficie techo	Densidad (viv./ha)	Número total	Número VPO	Número libres
63.782	0,90	57.404	70	446	290	156

2.10.3. artikulua.—Eguzkitzagoiena sektorea garatzeko arau zehatzak

Eguzkitzagoiena izeneko sektoreak, guztira, 209.818 m²-ko azalera gordina du, Santikurutzeko herri bidea barne.

Lur hori Eguzkitzako bidearen gainean dago, Santikurutzeko bideak ere mugatuta; hegoalderako goranzko magalean dago eta aranaren ikuspegi ederra ematen du.

Sektorearen helburua kalitateko handiko familiako etxebizitza bakartua hartzea da lur-zati zabaletan; berdeguneak eraikitakoari eta urbanizatutakoari gailenduko zaie. Aurreikusitako etxebizitza mota dela-eta, ez dira babes ofizialeko etxebizitzak proiektatu.

1. Erabileraren baldintzak

Sektoreko erabilera orokorra oso dentsitate txikiko egoitzako erabilera da; beraz, familiako etxebizitza bakartuko erabilera xehekatua baizik ez dira haizu, etxebizitza bat edo bi gehenez lur-zatiko.

Plan partzialean, unitate gisa hartutako industriako erabileraren (beren topologiarekin) eta balio handiagoak edo txikiagoak dituzten eta baimenduta dauden gainerako erabileren arteko haztaren erlatiboko koefizienteak ezarriko dira, kokapenaren inguruabar zehatzetan eta emaitzako eraikuntzako tipologiaren arabera.

Aparkalekuko bi plaza gutxienez proiektatuko dira etxebizitza bakoitzeko, baina plan partzialean zuzkidura handiagoa ezar daiteke.

2. Aprobetxamenduaren baldintzak

Sektorearen eraikigarritasun gordinen koefiziente 0,12 m²/m²-koa da. Gehieneko dentsitatea 5 etxebizitzakoa da hektareako, eta sestra gaineko solairuko kopurua biko. Solairu kopuruaren zenbaketari buruz ezarriko diren irizpideak arautegi honetan xedatutakoari lotuko zaizkio, zehazki VI. kapitulu 1. tituluko 2. atalean azaldutako kontzeptuei.

Familia bateko edo biko etxebizitzako erabileren arteko haztaren erlatiboko koefizienteak ezarriko dira plan partzialean, bi etxebizitza mota horien proiektua egiten bada.

3. Antolamenduaren baldintzak

Plan partzialean Eguzkitza bidearekiko lotuneak eta auto eta oinezkoen bide sistema ezarriko dira (paraleloak edo autonomoak); hala, 68/2000 Dekretuaren arauak beteko dira, bereziki 3. artikulua.

Gune libreetako tokiko sistemarako lagapenak aranaren gaineko begiratoki gisa kokatuko dira sektorearen gorengo tokian; gutxienez eskatu beharreko erreserben %50 izango dira, kontzeptu horretarako Plangintzako Araudiaren Eranskinaren arabera. Era berean, babeserako zuhaitz-lerro bat jarriko da sektorearen mugaren eta Eguzkitzako bide konpoduaren artean.

Berdegune biak oinezkoen bidez lotuko dira hirigunearen eta natur gunearen arteko bidea erraztuta, eta gainera sektoreko berdegunea eta Santikurutzeko bidearen bestaldean dagoen basoko parke publikoa lotuko dira.

Bide hori bitan banatu beharko da autoen eta oinezkoen bidean, baina barruko bidea bi trafikoko horietarako diseinatu daiteke bidearen funtzionaltasuna dela eta.

Antolamenduaren ondoriozko guztizko azalera pribatua ez da izango sektorearen azalera gordinaren %70 baino handiagoa.

Artículo 2.10.3.—Normas específicas para el desarrollo del sector Eguzkitzagoiena

El sector denominado Eguzkitzagoiena tiene una superficie bruta, incluyendo el camino público a Santikurutz, de 209.818 m².

Este suelo se sitúa topográficamente sobre el camino de Eguzkitza y limitado también por el camino a Santikurutz, en ladera ascendente hacia el sur y con excelentes vistas sobre el valle.

La finalidad del sector es acoger vivienda familiar aislada, de mucha calidad, sobre amplia parcela en la que domine el verde sobre lo construido y urbanizado. Dada la tipología prevista no se proyectan en este sector viviendas de protección oficial.

1. Condiciones de uso

El uso global del sector es residencial de muy baja densidad autorizándose por lo tanto como usos pormenorizados exclusivamente de vivienda familiar aislada, con una o dos viviendas por parcela como máximo.

El Plan Parcial regulará así mismo los usos complementarios o servidores del uso propio, y establecerá, en su caso, los coeficientes de ponderación relativa entre la tipología característica de vivienda unifamiliar aislada, tomado como unidad, y los restantes usos permitidos, a los que corresponderán valores superiores o inferiores, en función de su situación y tipología.

Por cada vivienda se proyectará un mínimo de dos plazas de aparcamiento, pudiendo el Plan Parcial incrementar dicha dotación.

2. Condiciones de aprovechamiento

El coeficiente de edificabilidad bruta del sector es de 0,12 m²/m². La densidad máxima es de 5 viviendas por hectárea y el número de plantas sobre la rasante de dos. Los criterios de cómputo de número de plantas que se establezcan, en su caso, se ajustarán a lo dispuesto en esta Normativa, en concreto a los conceptos expresados en la sección 2.ª, capítulo VI, título I.

El Plan Parcial establecerá los coeficientes de ponderación relativa entre el uso de vivienda unifamiliar o bifamiliar, en el supuesto de proyectar ambas tipologías.

3. Condiciones de ordenación

El Plan Parcial establecerá las conexiones con el camino de Eguzkitza y un sistema viario y peatonal, paralelos o autónomos, de forma que se cumplan las normas derivadas del Decreto 68/2000, en particular el artículo 3.

Las cesiones para el sistema local de espacios libres se localizarán en la parte más alta del sector a modo de mirador sobre el valle, en una cuantía mínima del 50% de las reservas exigibles a tenor del anexo del Reglamento de Planeamiento por este concepto. Igualmente se dispondrá una franja arbolada de protección en el límite del sector con el camino rectificado de Eguzkitza.

Ambas zonas verdes se verán conectadas peatonalmente facilitando el tránsito de lo urbano al espacio natural, y entre la zona verde del sector y el parque forestal público situado al otro lado del camino a Santikurutz.

Este camino deberá desdoblarse en canal rodado y peatonal, pero el viario interno podrá ser diseñado de forma promiscua para ambos tráfico, dada la funcionalidad del mismo.

La superficie total privada resultante de la ordenación no podrá exceder del 70% de la superficie bruta del sector.

4. Kudeaketaren baldintzak

Sektorearen xedea eta jabetzaren egitura direla-eta, plan partzialak ezarri beharreko jarduketa sistema konpentsaziokoa izango da ahal dela.

Eguzkitzagoiena banaketa aldea da.

Burutzapenu- nearen azalera (m ²)	Eraikigarritasuna		Etxebizitzak			
	Koefizientea (m ² /m ²)	Sabai- azalera	Dentsitatea (etxeb./ha)	Kopurua, guztira	BOEen kopurua	Libreak, guztira
209.818	0,12	25.178	5	105	—	105

4. Condiciones de gestión

Dado el objeto del sector, así como la estructura de la propiedad, el sistema de actuación a fijar por el Plan Parcial será preferentemente el de Compensación.

El sector Eguzkitzagoiena constituye un Area de Reparto.

Superficie unidad (m ²)	Edificabilidad		Viviendas			
	Coefficiente (m ² /m ²)	Superficie techo	Densidad (viv./ha)	Número total	Número VPO	Número libres
209.818	0,12	25.178	5	105	—	105

2.10.4. artikulua.—Eguzkitza II industrialdea garatzeko arau zehatzak

Eguzkitza II sektoreko plan partziala tramitatu eta behin betiko onetsi zen otsailaren 21eko 97/1995 Foru Aginduaren bidez. Haren hirigintzako arautegia B.A.O.n argitaratu zen 1995eko abenduaren 7ko 233. alean.

Ondoren plan partzialaren unean uneko aldaketa egin zen 7. Bidean, eta behin betiko onetsi zen abenduaren 4ko 695/2000 Foru Aginduaren bidez.

Dokumentu horrek plan partzialaren arautegiko fitxari eta indarraldiari eusten die; dokumentu honen dokumentazio grafikoarekin bat etorritz, hauxe da:

Artículo 2.10.4.—Normas específicas para el desarrollo del sector industrial Eguzkitza II

El Plan Parcial Eguzkitza II fue tramitado y aprobado definitivamente mediante Orden Foral 97/1995, de 21 de febrero. Su normativa urbanística fue publicada en el «B.O.B.» número 233, del 7 de diciembre de 1995.

Con posterioridad, fue objeto de una modificación puntual del Plan Parcial en el eje viario número 7, que a su vez fue aprobada definitivamente mediante Orden Foral 695/2000, de 4 de diciembre.

Dicho documento mantiene su vigencia y la ficha normativa del Plan Parcial, en consonancia con la documentación gráfica del presente documento, es el siguiente:

Lur-zatiak	Erabilera eta jabaria	Azalerak			
		Lur-zatia, guztira (Stp)	Eraikuntza bakoitzak atze- man dezakeen azalera (Sto)	Azalera eraikigarria, guztira	Aukerakoa
I.	Pribatua	22.612,00	16.931,00	25.396,00	5.681,00
II.	Pribatua	19.291,00	14.340,43	21.511,00	4.950,57
III.	Pribatua	19.936,00	15.371,57	23.057,00	4.564,43
IV.	Pribatua	15.906,00	11.147,00	16.720,00	4.759,00
V.	Pribatua	23.442,00	17.257,00	25.885,00	6.185,00
VI.	Pribatua	23.888,00	15.930,00	23.895,00	7.958,00
VII.	Pribatua	22.600,00	3.217,00	4.825,00	19.383,00
VIII.	Pribatua	14.850,00	10.524,00	15.786,00	4.326,00
IX.	Pribatua	10.385,00	5.290,00	7.935,00	5.095,00
Pribatua, guztira .		172.910,00	110.008,00	165.010,00	62.902,00
Gizarteko Merkatari- tzakoa	Publikoa	11.899,25	1.200,00	3.600,00	10.699,25
Publikoa, guztira		11.899,25	1.200,00	3.600,00	10.699,25
Guztira		184.809,25	111.208,00	168.610,00	73.601,25

Parcelas	Uso y dominio	Superficies			
		Total parcela (Stp)	Total ocupable por edificación (Sto)	Construible total	Libre
I	Privado	22.612,00	16.931,00	25.396,00	5.681,00
II	Privado	19.291,00	14.340,43	21.511,00	4.950,57
III	Privado	19.936,00	15.371,57	23.057,00	4.564,43
IV	Privado	15.906,00	11.147,00	16.720,00	4.759,00
V	Privado	23.442,00	17.257,00	25.885,00	6.185,00
VI	Privado	23.888,00	15.930,00	23.895,00	7.958,00
VII	Privado	22.600,00	3.217,00	4.825,00	19.383,00
VIII	Privado	14.850,00	10.524,00	15.786,00	4.326,00
IX	Privado	10.385,00	5.290,00	7.935,00	5.095,00
Total privado		172.910,00	110.008,00	165.010,00	62.902,00
Comer- cial- Social	Público	11.899,25	1.200,00	3.600,00	10.699,25
Total público		11.899,25	1.200,00	3.600,00	10.699,25
Total		184.809,25	111.208,00	168.610,00	73.601,25

Burutzapenu- ren azalera (m ²)	Eraikigarritasuna		Azalerak II	
	Koefizientea (m ² /m ²)	Sabai-azalera	Lur-zati pribatua	Gehienezko okupazioa
335.748	0,50	168.610	184.809	111.208

Superficie Unidad (m ²)	Edificabilidad		Superficies II	
	Coefficiente (m ² /m ²)	Superficie techo	Parcela privada	Ocupación máxima
335.748	0,50	168.610	184.809	111.208

2.10.5. artikulua.—Eguzkitza III industrialdea garatzeko arau zehatzak

Eguzkitza III izeneko industriako sektoreak 130.767 m²-ko azalera gordina du, kaleak eta herri bideak barne.

Eguzkitzako magalean dago, Eguzkitza II sektorearen hegomendebaldean; mugak: Durangoko kanpoko ingurabidea, Eguzkitza II sektorea, landagunea hegoaldetik eta zati batean mendebaldetik eta Eguzkitzagoiena mendebaldetik.

Artículo 2.10.5.—Normas específicas para el desarrollo del sector industrial Eguzkitza III

El sector industrial denominado Eguzkitza III tiene una superficie bruta, incluyendo calles y caminos de carácter público, de 130.767 m².

Situado en la ladera de Eguzkitza, al sudoeste del sector Eguzkitza II y linda con el cinturón exterior de Durango, el sector Eguzkitza II, zona rural por sur y parcialmente oeste, y con el sector Eguzkitzagoiena al oeste.

1. Erabileraren baldintzak

Erabilera orokorra industriakoa da, eta baimendutako erabilera xehekatuak sektorea garatuko duen plan partzialean finkatuko dira.

Plan partzialean, unitate gisa hartutako industriako erabilera- (beren topologiarekin) eta balio handiagoak edo txikiagoak dituzten baimendutako gainerako erabileren arteko haztapen erlatiboko koefizienteak ezarriko dira, kokapenaren inguruabar zehatzen eta emaitzako eraikuntzako tipologiaren arabera.

2. Aprobetxamenduaren baldintzak

Sektorearen eraikigarritasun gordina azalera gordinoko 0,45 m²/m²-koa da.

Sektorearen emaitzako lur-zati eraikigarrien multzoa, hau da, gehieneko lurzoru pribatizagaia, ez da sektorearen azaleraren %60etik gorakoa izango.

Sektorearen guztiko azalerari buruzko gehieneko atzematea %35ekoa izango da.

Eraikuntzaren gehieneko garaiera 10,50 metrokoa da, eta garaiera hori gainaldean jarriko diren instalazio bereziekin bakarrik gainditu daiteke.

3. Antolamenduko baldintzak

Sektorearen antolamendua lurraren topografia nagusiari ego- kitu beharko zaio; berau arautzeko, bide sarearen, berdegune- ko ezponden edo behar bezala taxututako hormen bidez elkarrekin ondo lotuko diren bankadak egingo dira.

Plan partzialean ezarriko den bide-diseinuak trafiko astunaren zirkulazio egokia eta maniobrak bermatu beharko ditu; horretarako, kamioien biraketa baldintza egokietan egiteko nahikoa leku emango zaio bideari. Zehazkiago, eta biderapena emateko, honako baldintza hauek bete beharko dira:

— Norabide bikoitzeko zirkulazio bideetan, fatxadako lerroa eta bideko ardatzaren artean 13 metroko tartea egongo da.

— Norabide bakarreko bideetan aurreko tartea 11 metrokoa izango da.

— Galtzadaren zabalera ez da 7 metrokoa baino txikiagoa izango, eta biraketa-erradioak ez dira 11 metrokoak baino txikiagoak izango.

— Zaku-hondoetan, 12 metroko gutxieneko birakea-erradioa izango du biribilguneak.

Sektorearen antolamenduak hauek ebatzi beharko ditu:

— Ekipamenduko eta berdeguneeko lagapenak sektoreko iparraldean biltzea; hala, multzo integratua osatuko dute antzinako Erretxu eta Eguzkitza I eta II sektoreekin eta Egoitzako RS-5 Santikurutz sektorearekin.

— Proposaturiko bidearen garapena eta beste bide sarearekin uztartzea.

Plan partzialean eraikuntzen arteko gutxieneko distantzia eta zintarri, kale eta lurzoru urbanizaezinetarainoko tartea ezarri beharko dira.

4. Kudeaketaren baldintzak

Sektorearen plan partzialean jarduteko sistema definituko da, ahal dela desjabetzapeneko sistema, salbu eta jabe pribatuek lan- kidetza sistema egiteko zentzuzko epeak dituen jarduketa eta ges- tio programa planteatzen badituzte.

Eguzkitza III Sektorea banaketa aldea da.

Burutzapene- ren azalera (m ²)	Eraikigarritasuna		Azalerak II	
	Koefiziente (m ² /m ²)	Sabai-azalera	Lur-zati pribatua	Gehienezko okupazioa
130.767	0,45	58.845	78.460	47.076

1. Condiciones de uso

El uso global es industrial y los usos pormenorizados permi- tidos se fijarán en el Plan Parcial que desarrolle el sector.

El Plan Parcial establecerá los coeficientes de ponderación rela- tiva entre el uso de industria con su tipología característica, tomado como unidad, y los restantes usos permitidos, a los que correspon- derán valores superiores o inferiores, en función de las circunstancias concretas de situación y tipología edificatoria resultante.

2. Condiciones de aprovechamiento

La edificabilidad bruta del sector es de 0,45 m²/m² de super- ficie bruta.

El conjunto de parcelas edificables resultantes del sector, es decir el máximo suelo privatizable, no superará el 60% de la super- ficie del sector.

La ocupación máxima referida a la superficie total del sector será del 35%.

La altura máxima de la edificación es de 10,50 metros, pudiendo ser superada solamente por las instalaciones especiales que se sitúen en cubierta.

3. Condiciones de ordenación

La ordenación del sector debe adaptarse a la topografía domi- nante del terreno, regularizándola mediante la creación de bancadas, conectadas entre sí mediante la red viaria, taludes de zona verde, o muros convenientemente trazados.

El diseño viario que establezca el Plan Parcial deberá garan- tizar la correcta circulación y maniobrabilidad del tráfico pesado, para lo cual se dotará a la vialidad de las dimensiones suficientes que posibiliten el giro de los camiones en las condiciones adecuadas. En concreto y a título orientativo se deberán cumplir las siguien- tes condiciones:

— En vías de circulación en doble sentido, la línea de fachada se separará 13 metros del eje del vial.

— En vías de un solo sentido la anterior separación será de 11 metros.

— La anchura de calzada no será inferior a 7 metros y los radios de giro no serán inferiores a 11 metros.

— En fondos de saco, la rotonda tendrá un radio de giro mínimo de 12 metros.

La ordenación del sector deberá resolver:

— La concentración de las cesiones de equipamiento y zonas verdes en la parte norte del sector, de tal modo que cons- tituyan un conjunto integrado con las de los antiguos sectores Erretxu y Eguzkitza I y II, así como el sector residencial RS-5 Santikurutz.

— El desarrollo del canal viario propuesto y su integración con la vialidad.

El Plan Parcial deberá establecer la distancia mínima entre edi- ficaciones y las separaciones mínimas a lindero, calle y al suelo no urbanizable.

4. Condiciones de gestión

El Plan Parcial del sector definirá el Sistema de Actuación, pre- ferentemente Expropiación, salvo que los propietarios privados plan- teen un programa de actuación y gestión con plazos razonables para acudir al Sistema de Cooperación.

El sector Eguzkitza III constituye un Area de Reparto.

Superficie Unidad (m ²)	Edificabilidad		Superficies II	
	Coeficiente (m ² /m ²)	Superficie techo	Parcela privada	Ocupación máxima
130.767	0,45	58.845	78.460	47.076

XI. KAPITULUA

**LURZORU URBANIZAEZINA DUTEN EREMUETAKO
ARAU ZEHATZAK**

1. ATALA

LURZORU URBANIZAEZINARI BURUZKO ARAUBIDE OROKORRA**2.11.1. artikulua.—Lurzoru urbanizaezineko erabilera orokorrak**

1. Lurzoru urbanizaezinaren lurrak, sailkapen orokorraren ondorioetarako, Sistema Orokorretako eremu eta arloetan banatzen dira.

2. Ingurunea antolatzeke zehaztutako kategoriak oinarritzat hartuta ezarri dira lurzoru urbanizaezineko alde pribatuak, lurralde antolamenduko jarraibideen arabera.

3. Lurzoru urbanizaezineko alde pribatuak ondoko hauek dira:

- Urkiolako Natur Parkeko aldea.
- Paisaiaren babeserako aldea.
- Basogintzako ekoizpen aldea.
- Nekazaritza nahiz abeltzaintza aldea eta landazabala.
- Erabilera zehaztu gabe duten aldeak.
- Azaleko Uren Babeserako Zonaldea.

4. Lurzoru ez urbanizagarrian kokaturiko titulartasun publiko mendiak, Baso Parkea bezala kalifikatu eta 2.11.22 artikulua zehaztapenek arautzen dituzte.

5. Espazio askeen sistema orokorraren osagarri diren titulartasun publikoko aldeak, 4 planoan daude mugatuak eta San Rokeburu, Artabilla-Santikurutz, Neberondo, Landaederra deitzen dira. Alde hauek horretara daude kalifikatuak, kokapena, irisgarritasuna eta ekipamendua kontuan izanik, bertan, degradatzeko arriskurik gabe, jolas jarduera hedakor bat egin daitekeelako.

6. Durangon ez dago Eusko Legebiltzarraren Landa-guneei buruzko 5/1998 Legearen ezaugarriak dituen alderik.

7. Aurreko ataletan agertzen diren alde zehaztapen grafikoa lurzoru urbanizaezineko kalifikazioari buruzko 0.4. planoan agertzen da 1/10.000 eskalan.

2.11.2. artikulua.—Xedapen orokorra, lizentziak eta baimena

1. Lurzoru urbanizaezinari buruzko araubidea Eusko Legebiltzarraren 5/1998 Legearen «Lurzoru urbanizaezina» izeneko 1. artikuluan ezarritakoa izango da.

2. Lurzoru urbanizaezineko eremuetan eraikuntza jarduerak egiteko eta lurzorua erabiltzeko lizentziak emateko, Bizkaiko Foru Aldundiaren organo eskudunaren baimena behar da aurretik, Lurzoruari buruzko 1976ko Legearen 85. artikuluko 1. zenbakiko bigarren arauan bildutako eraikinak eta instalazioak egin nahi direnean, betiere kasuan kasuko eremuko erabilera baimenduetan sartzen badira.

3. Abelurreko eta baso erabileretarako eta herrilanak burutu eta haien mantenimendu eta zerbitzua egiteko erabilerarako eraikinen eraikuntza-lizentziak Udalak emango ditu zuzenean, aurreko zenbakiko aurretiko baimenik gabe ere.

4. Sistema orokorretarako diren alde hirigintzako araubidea horien kalifikazio orokorrari lotuta dago. Titulu honen I. kapituluaren ezarri da, baita lurzoru urbanizaezineko aldeena ere.

2.11.3. artikulua.—Komunikabideetako sistema orokorren babesa lurzoru urbanizaezinean

1. Garraio eta komunikabideetako sistema orokorrekin muga egiten duten lurzoru urbanizaezinetan Bizkaiko Errepideei buruzko Foru Arauaren 1. ataleko III. kapituluaren ezarritako mugak aplikatuko dira.

2. Sistema Orokortzat sailkatutako udal bideekin mugakide diren lurzoru urbanizaezineko eremuetan, oin berriko eraikinek, gutxienez, 14,5 metroko tartea utzi behar dute bidearen ardatzekiko. Sis-

CAPITULO XI

**NORMAS ESPECIFICAS DE LAS ZONAS PRIVADAS
DEL SUELO NO URBANIZABLE**SECCIÓN 1.^a**RÉGIMEN GENERAL DEL SUELO NO URBANIZABLE****Artículo 2.11.1.—Usos globales del suelo no urbanizable**

1. Los terrenos del suelo no urbanizable se dividen, por efecto de la calificación global, en zonas privadas y zonas destinadas a sistemas generales.

2. Las zonas privadas del suelo no urbanizable se establecen en base a las distintas categorías definidas para la ordenación del medio físico en las Directrices de Ordenación Territorial.

3. Las zonas privadas de suelo no urbanizable protegido son las siguientes:

- Zona del Parque Natural de Urkiola.
- Zona de protección paisajística.
- Zona de producción forestal.
- Zona agroganadera y campiña.
- Zona sin vocación de uso definido.
- Zona de protección de aguas superficiales.

4. Los montes de titularidad pública ubicados en suelo no urbanizable se califican como parque forestal y se rigen por las determinaciones del artículo 2.11.22.

5. Las áreas de titularidad pública que integran el sistema general de espacios libres, figuran delimitaciones en el plano 4, y se denominan San Rokeburu, Artabilla-Santikurutz, Neberondo, Landaederra. Estas zonas se califican así por ser susceptibles de una actividad de recreo extensivo, sin riesgo de degradación, en razón a su ubicación, accesibilidad y equipamiento.

6. En el término de Durango no existe ninguna zona que reúna las características de Núcleo Rural de la Ley 5/1998 del Parlamento Vasco.

7. La zonificación indicada en los números anteriores se define gráficamente en el plano 0.4 de «Calificación del suelo no urbanizable» a escala 1/10.000.

Artículo 2.11.2.—Disposiciones generales, licencias y autorización

1. Régimen del suelo no urbanizable es el establecido en el artículo 1 titulado «Suelo no urbanizable» de la Ley 5/1998 del Parlamento Vasco.

2. La concesión de licencias para realizar actos de construcción y uso del suelo en las zonas del suelo no urbanizable estará sujeta a la previa autorización del órgano competente de la Diputación Foral de Bizkaia cuando se trate de edificaciones e instalaciones de utilidad pública e interés social, de acuerdo con lo establecido en la regla segunda del número 1 del artículo 85 de la Ley del Suelo de 1976, y se encuentren incluidas dentro de los usos permitidos en la zona de que se trate.

3. La concesión de licencias para realizar construcciones destinadas al uso agropecuario, al uso forestal y a la ejecución, mantenimiento y servicio de las obras públicas, se realizará directamente por el Ayuntamiento, sin necesidad de la autorización previa del artículo anterior.

4. El régimen urbanístico de las zonas destinadas a sistemas generales es el derivado de su calificación global, que se establece en el capítulo I de este título, incluso para aquellas que se sitúen en suelo no urbanizable.

Artículo 2.11.3.—Protección de los sistemas generales de comunicación viaria en suelo no urbanizable

1. En las zonas de suelo no urbanizable limítrofes con el sistema general de transporte y comunicaciones, son de aplicación las limitaciones establecidas por la Norma Foral de Carreteras de Bizkaia, en su sección 1 del capítulo III.

2. En las zonas de suelo no urbanizable, limítrofes con caminos municipales calificados como sistema general, las edificaciones de nueva planta deberán separarse un mínimo de 14,5

tema Orokorrean sailkatzen ez diren udal bideei dagokienean, ares-tian aipatu den tartea 8,5 metrora arte murriztuko da.

3. Hala eta guztiz ere, aurreko zenbakiko mugapenak ez dituzte ukitzen lurzoru urbanizaezineko eremueta dauden eraikinetan egin litezkeen eraikuntza-jarduketak. Jarduketa horiek ezin izango dute inongo elementurik sortu bidetik orain dauden elementuak baino hurbilago dagoenik.

2.11.4. artikulua.—Lurzoru urbanizaezinetako eraikinak zerbitzuez hornitzea

1. Lurzoru urbanizaezinean eraikin eta instalazioak egiteko lizentzien eskatzaileek eraikin eta instalazio berriei, beren kargura eta dituzten ezaugarrien arabera, ur hornidura, hondakinak araztu eta isurtzeko baliabideak eta argindarra jarri beharko diete.

2. Horretarako, lizentzia eskatzeko unean, aipatu zerbitzuak jartzeko proiektua aurkeztu beharko dute, bai eta kondukzio berriak egiteko ukitutako lur-zati guztietako jabeen, halakorik badago, adostasun txostena ere.

3. Hondakin uren arazketa eta isurketa NTE-ISD Arau Teknologikoan ezarritako sistemetako baten bidez egin beharko dira, prozesu anaerobioaren ondoren hondakin uretarako behar diren iragazkiekin, eta isurketak ondoko finkak ezertan kaltetu gabe, salbu eta udalaren saneamendu sareekiko lotunea egin behar bada; halakorik behar izanez gero haien kontura izanen da. Udal kolektoretik 150 m baino txikiagoko tartera jartzen badira, kolektorearekin lotuta egongo dira nahitaez.

2.11.5. artikulua.—Lurzoru urbanizaezineko lur-zatien itxiera

1. Eraikuntzako lur-zati hartzaileen itxierak tradiziozko harlanduzko hormen bidez egin daitezke, eta koroaketako gehieneko garaiera metro batekoa izango da gehienez. Ezin erabil daitezke hormigoizko aurrefabrikatuak.

Harresiak 1,8 metroraino garaiera izan dezake zurezko hesien, zutoinen eta arantzarik gabeko brdin harizko hesien eta bakarrik landarezko hesien edo aurrekoekin konbinatuta.

2. Aurreko zenbakian agertzen diren fabrikako itxieren eta horien aurrealdera ematen duten bideetako ardatzaren artean gutxienez 4,5 metroko tartea egon behar du.

3. Eraikinik izango ez duten lur-zatietan, gehienez ere 1,6 metroko hesiak baimenduko dira, betiere arantzarik gabeko burdin harizko hesiak edo zutoin hutsak edo zutoinak landarezko itxierekin batera jarrit.

4. Egon dauden bideen aurrealdean egiten diren itxieren eta bideko ardatzaren artean gutxienez 3 metroko tartea utzi beharko da, itxiera horiek nekazaritza eta abeltzaintzarako egiten badira, eta itxierok horregatik egiten badira, bideko ardatzerainoko tartea gutxienez 4,5 metrokoa izango da.

2.11.6. artikulua.—Lur-zati hartzaileek autoen sarbideen inguruan bete beharreko baldintzak

Lurzoru urbanizaezineko lur-zati batean eraikin berri baten eraikuntza-baimena emateko, lur-zatiak ibilgailuen zirkulazioa hartzeko gauza den galtzadadun bide baten bazterrean egon behar du, testu bategin honen hasierako onespina eman aurretik zegoen horretan. Beraz, lur-zatiak bidearekin mugakide izan behar du eta bidea aurrealdean eduki behar du. Sarbide zuzena eduki behar du edo bestela hori burutzeko aukera, aipatu bidea babesten eta gordezten duen erakundeak emandako sarbide baimenaren arabera.

2.11.7. artikulua.—Lurzoru urbanizaezinko eraikunen baldintzak estetikaren aldetik

1. Oinplano berriko eraikinak lurzoru urbanizaezinean egingo dira, natur inguruari ondo egokituko zaizkio eta euskal herrietako arkitekturaren berezko elementuak eta taxuera klasikoak izango dituzte.

2. Teilatu inklinatuak egingo dira, ehuneko 20 eta 40 bitarteko maldekin. Hartara, teila kurbo gorrixka edo mistoa erabiliko da teilatuan jartzeko.

metros del eje del camino; cuando se trate de caminos municipales no calificados como sistema general la distancia indicada anteriormente queda reducida a 8,5 metros.

3. En cualquier caso las limitaciones del número anterior no afecta a las intervenciones constructivas posibles de realizar en las edificaciones existentes en las diversas zonas del suelo no urbanizable, las cuales no podrán, en ningún caso, crear ningún elemento edificado más próximo al camino que los existentes.

Artículo 2.11.4.—Dotación de servicios a las edificaciones en el suelo no urbanizable

1. Los solicitantes de licencias para realizar edificaciones e instalaciones en suelo no urbanizable, deberán dotar a su costa a las nuevas edificaciones e instalaciones de suministro de agua, depuración y vertido de residuales y energía eléctrica adecuadas a sus características.

2. Al efecto, en el momento de solicitar licencia, presentarán el proyecto de dotación de los servicios indicados, así como la conformidad de todos los propietarios de las fincas afectadas, en su caso, por las nuevas conducciones.

3. La depuración y vertido de las aguas residuales se realizará por alguno de los sistemas establecidos en la Norma Tecnológica NTE-ISD, con la dotación de filtros de las aguas residuales tras el proceso anaerobio, y sin afectar el vertido a los predios colindantes, salvo que puedan realizar la conexión con las redes municipales de saneamiento, que efectuarán a su costa. Cuando se sitúen a menos de 150 metros de un colector municipal, deberán conectar obligatoriamente con él.

Artículo 2.11.5.—Cierre de parcelas en suelo no urbanizable

1. Los cierres de las parcelas receptoras de edificación se podrán realizar a base de muros tradicionales de mampostería de piedra natural con una altura de coronación máxima de 1 metro. No se permite la utilización de prefabricados de hormigón.

El muro de piedra podrá complementarse hasta 1,80 metros, mediante vallas de madera, estacas y alambrada sin espinos, así como cierres vegetales solos o combinados con los anteriores.

2. Los cierres de fábrica indicados en el apartado anterior deberán de separarse un mínimo de 4,5 metros del eje de los caminos de dominio público al que den frente.

3. En las parcelas que no sean receptoras de edificaciones, sólo se permitirán cierres de hasta 1,6 metros de altura a base de alambradas sin espinos y estacas solas o combinadas con cierres vivos vegetales.

4. Los cierres que se realicen en los frentes de los caminos existentes y cuya ejecución se origine por motivos de explotación agropecuaria se separarán un mínimo de 3 metros del eje del camino; en el caso que de que la motivación del cierre no venga fundada en lo indicado anteriormente la separación del eje deberá ser de 4,5 metros como mínimo.

Artículo 2.11.6.—Condiciones de acceso rodado a cumplir por las parcelas receptoras

En suelo no urbanizable para que en una parcela pueda autorizarse la construcción de un nuevo edificio, deberá estar situada al borde de una vía o camino con calzada capaz de albergar circulación de vehículos, existente en el momento de la aprobación inicial de las presentes Normas Subsidiarias, es decir, deberá colindar dando frente a dicha vía y poseer acceso directo o posibilitarse su ejecución, en función del permiso de acceso emitido por el organismo bajo cuya custodia se encuentre la vía de referencia.

Artículo 2.11.7.—Condiciones estéticas de las edificaciones en suelo no urbanizable

1. Las edificaciones de nueva planta a realizar en el suelo no urbanizable, deberán ser respetuosas con el medio natural en el que se implanten, y utilizar los elementos arquitectónicos propios de la arquitectura rural vasca.

2. Las cubiertas deberán ser inclinadas, con pendientes entre el 20 y el 40 por ciento, utilizando la teja curva o mixta como material de cubrición en tonos rojos.

3. Fatxadetako material nagusiak fabrikako obra zarpeatua edo iztukatua eta harri naturaleko harlandua eta harlangaitza izango dira. Zura ere onartzen da, Euskal Herriko herri arkitekturako eskualdeen eta piezakatzeen arabera; zura bakarrik edo caravista motako adreiluarekin erabil daiteke, baina neurrian.

4. Debekatuta dago aurreko zenbakian sartu ez diren materialak erabiltzea, fatxadako zuloetako zurgintzako mihiztadurak burutzeko ez bada. Kasu horretan material plastikoak eta aluminioa onartuko dira, fatxadetako obra jantzien tonuaren arabera koloreetan akabatuak.

5. Eraikinetako oineko konposizioan eta altxaeran, kontuan hartuko dira herri arkitekturaren konposizio arauak, arkitektura klasikotik eratorriak. Konposizio horretako arazoak forma geometriko soilen bidez konponduko dira, sarrera-ateara askorik gabe, simetriaren legeak modu egokian erabiliz.

6. Hiriguneetako etxebizitzaren arkitekturari dagozkion elementu arkitektonikoak baztertuak dira fatxadako konposizioan: pertsiana tolesgarriak, balkoi jarriak profil hutsak dituzten burdinkiekin eta atal kristaldunekin, eta abar.

